

uk

181. zenbakia / 2010eko irailaren 20a



Eman izena Getxoko euskaltegietan!

Getxoko Udalak diru-laguntzak ditu euskara ikasi nahi duten getxotarrentzat; baliabide ekonomiko nahikorik dutenentzat, Getxoko saltokietan lan egiten dutenentzat, gazteentzat, gurasoentzat, haur zaintzaileentzat, begiraleentzat, etorkinentzat... Etorri eta izena eman besterik ez duzu egin behar.

DENOK BATERA, EUSKARA AURRERA

www.getxo.net

AUKERA BERRIAK GETXOKO EUSKALTEGIETAN:

- 4. Maila lortzeko ikastaroa Udal Euskaltegian.
- EGA ikastaroa larunbat goizetan Jose Antonio Agirre Euskaltegian.
- "Ikasgela" Lauaxeta AEK Euskaltegian (tutoretzak eta autoikas-kuntza uzartzen dituen ikastaroa)

Eta gainera, betiko ikastaroak, maila guztietan, ordu guztietan...

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkarte
 HELBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
 ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
 ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarmiraga, Zuberoa Iturburu, Maitane Nerekan
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
 KOLABORATZAILAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
 AHOLKULARITZA: Jokin Aspuru
 FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteentz Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILAK



TRATU TXARRIN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA 900 940 111

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Folk Getxo 2010.
7. LEHEN ETA ORAIN. Aingeru Etorbidea, Getxo.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Aketza Sanchez.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Gorlizko motorzaleen bilkura.
28. ARGAZKIA. Ereagako hondartzako markesina, 1920.
30. BERBETAN. Joxe Mari Agirretxe.
34. FOTOGRAFIA. Ander Ormaetxea.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Film Sozialak Bilbon..
43. MUSIKA. Berri Txarrak-en azken albisteak.
44. LIBURUAK. *Bilboko Barrea* jardunaldiak. Erreseinak.
45. KIROLAK. Garazi Bilbao arraunlaria.
46. ELKARRIZKETA. Itxaso Gurrea.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Portu Zaharra, Algorta.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algortako trainerilla, 1977.
54. AITORMENAK. Lander Otaola.

Azala: Ander Ormaetxea

www.ukaldizkaria.biz



30 Joxe Mari Agirretxe

Berbetan

Goxo-goxo, imbarrez, koloretako ametsak eskaintzen baina serio demonio! egin du berba Porrotxek.



11 Aketza Sanchez



54 Lander Otaola



Begoña Letona
Leira zapata-denda

Gertziaga Bascaran
Publizitate ikaslea

Mari Mar Cahala
Arma

Eduardo Camino
Argazkilaria

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA | LAUAXETA AEK EUSKALTEGIA | J. A. AGIRRE EUSKALTEGIA | B&B by GETXO
 Lope de Vega kalea 12, 3A. Tel.: 94 484 92 98. euskaltegi@getxo.net | Iperbide kalea 6. Tel.: 94 430 47 34. lauaxeta@eak.org | Algortako etorbidea 104. Tel.: 94 480 90 71. ja.agirre@euskaltegi.net | Algortako etorbidea 70-B. Tel.: 94 491 30 00

GETXOKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA. Tel.: 94 499 00 10. euskara.zerbitzua@getxo.net



Leioa Berri Auto

- ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra
- Autokarabanak

HARTU TXANDA ONLINE - CITA ONLINE

WWW.RENAULTLEIOA.COM

WWW.RENAULTLEIOA.COM

Leihatila

> Pedro Garcia Larragan

ETA

Ez da nahikoa. Bere agirian ETAk ez du esan espero duguna: armak uzteko erabakia betikoa dela, alegia. Ez dago adierazpen zehatzik. Ez dago berba argirik. ETAk bere hizkera 'bihurria', mugabakoa, ulertezina baino ez darabil. Orokorkeriak. Eta hori, dagoeneko, ez zaigu aski.

Ez du ematen konturatzen direnik. Azkenengo su-etenaren porrotak prezio bat dauka ETarentzat: sinesgarritasun eza. T-4an bonbaz euskal gizartearen ametsa eta itxaropena zeharo suntsitu ondoren, hainbat jende eta hainbeste alditan engainatu ostean, ETAk, berba egiteaz gain, zerbait gehiago erakutsi behar du: su-etenak ez duela atzera bueltarik. Tamalez, bere azkenengo adierazpena entzunda, ezin da horrelakorik baiztatu. Hondamenean ere, porrot absolutua ekidin daiteke. ETaren esku dago hondamendiaz gain, porrotaren maila negoziatzea. Esate baterako, orain dela 50 urte Japonetik eta Alemaniak egin zuten bezalaxe.

Iritzia

Lezamako harpidedun baten eskutik heldu zaigu ikasturteko lehen zenbaki honetarako iritzia. Zein hizkuntzatan egiten dute berba Getxoko arrainek?

Getxoko aquariuma, arrainak erdaldun?

Barkatuko didazue izenburu kikea-monarritzarra, baina horixe etorri zitzaidan burura duela hilabete-edo,

«Aurkezpen benetan txukuna topatu nuen, informazioz ederto atonduta, irudiak ere bikainak... baina azalpen guztiak gaztelania hutsean»

Getxoko aquariuma bisitatzea otu zitzaidan. Udaberriaren Karrantzako "Karpin Abentura" parkean eta geroago Espainian, Cabarcenokoan, ibili ginen, eta neskatoa pozarren ikusi genuen era guztietako animaliak berta-

www.getxo-aquarium.com-etik osteratxo egin eta gero.

Izan ere, abuztuko egun sargaritsu horietako batean gure alabari plan interesgarria eskaintzeko asmoz,

tik bertara ezagutzen. Hortaz, aquariumaren webgunea begiratzen hasi nintzen, ordutegien, salneurrien, ikusgaien... berri izateko.

Aurkezpen benetan txukuna topatu nuen, informazioz ederto atonduta, irudiak ere bikainak... baina idatzizko azalpen guztiak gaztelania hutsean. Eta orduantxe, Castro Urdialesera telegarriatu banindute legez sentitu nintzen. Eta gogoratu nuen, Karpinen, Euskal Herriko "far west"ean, kartel guztiak euskaraz ere bazeudela, eta txarteldegiko arduraduna euskalduna zela, eta alabak primeran ulertu zuela den-dena. Baina Cabarcenon baldarrago moldatu ginea, azalpenak guztiz ondo ulertu ezinik. Eta hasi nintzaion buruari galdezka, webgunea ikusita, zelan ote daude aquariumeko errotulazioa eta azalpen didaktikoak?, alaba bertara eroanda, erdaldunei bezain probetxugarri izango ote zaio?, aquariumekoei txertatzen zaien diru publikoaren truke ez al dute konturik eman behar?

Gaur ere, irailak 2, zalantzok bere horretan dira (eta webguneak abuztuan bezain arrotz). Baina egoera laster arteztuko den itxaropena daukat eta orduan bai, inor baino gogotsuago joango gara, itsaspeko izaki ikusgarriez gozaten; ordura arte, Karpinera behar beste aldiz itzultzea eta "Getxoko aquarium, arrainak euskaldun!" aldarrir egitea geratzen zaigu.

Unai Ugalde Olea
(UK aldizkariko harpideduna,
Lezama)

gu geu

Ikasturte hasierako aldaketak

Ikastola eta eskoletako ateak zabaldu dira; baita udan itxita egon diren lantoki askotakoak ere. UK-ko bulegoan, eguneroko martxa biziak lagundu digu opor osteko depresioa atzean uzten. Gogorra izan ohi da ikasturte hasiera; ez da erraza herrietako jaiak, bidaiek eta hondartzako bainuek oparitzen diguten plazerretik ordenagailuak eta telefonoak sortzen diguten ezinegonera pasatzea. Dena den, udako oroitzapen goxoak gure barruan gordeta lotu dira, hor nonbait; neguan ere horrelakoren bat gordetzen saiatuko gara.

Gainera, dana ez da ezinegon izan 2010-2011 ikasturte hasieran; ilusioz beterik egin dugu 181. zenbakia. Nondik sortu da ilusioa? Gure kolaboratzaile barrien proposamen eta sormen gaitasunetik. Apurka-apurka ezagutuko dituzu. Zenbaki honetan Fredi Paiak "Ohi dan lez" egingo digu berba, bere atal barritik; hamabostean behin zugaz izateko plazerra izango duzu. Eskualdeko ohitura zaharren, txoko esanguratsuen, berben eta bestelakoen barri emango digu paiatarren zaharrenak (hiruren artean zaharrena, baina bihotz gaztea duena). Mila esker zure ilusioa transmititzeagatik, Fredi!

Datozen zenbakietan aurkezpen gehiago. Hurrengora arte!

UK-ko lantaldea



XABI ABURRUZAGA. FOLK GETXO 2010 (AREETA)

Trikitilari naufragoa/ Irailaren 9tik 12ra ospatu zen Folk Getxo 2010 Jaialdian entzun ahal izan genuen Xabi Aburruzaga trikitilaria. "Denboraren naufragoa" bere azken lana aurkeztera etorri zen gurera. Horretarako, eta argazkian bakarrik ikusten badugu ere, hainbat artista-lagun gonbidatu zituen Areetako karpapera: Natxo de Felipe, Antton Laka, Mikel Markez, Amaia Oreja e.a. Hala ere, esku artean izan zuen trikitixa izan zen kontzertuko protagonista nagusia. ○

/ Argazkia: Asier Mentxaka

yoga-ikastaroa euskaraz



Urdaitik *ehainera* bitartean
Noiz: astelehen & eguaztenetan
Ordutegia: 19:30 - 21:00
Non: SAN NIKOLAS ikastolan (Algorta)
Prezioa: hilean 30 € / 26 € Berbalagun,
 Bizarra Lepoaneko bazkide & San Nikolas
 ikastolako kideek

(Urriaren 4, 6, 11 & 13an klaseak Aldai
 Patronatuan izango dira)

egizu!

INFORMAZIO + 619 935 541 egizugezio@gmail.com
 Martikoena 16, 2. solaria ALGORTA www.blog.sri.net/egizu

AMOLATZAILAK:  Irudia: by-sa Kyle Lease



MESEDEETAKO JAIETAN ERE... EUSKARA BIZI!!!

Gose taldearen eskutik

GOSE

KONTZERTUAN!

Irailaren 24an. 23:00
 Eskoletako plaza
 Antolatzailea:
 MESEDEETAKO JAI BAZTORDEA

 **Getxo**
lehiaketa


EUSKARA BIZI




Iraganez doa denbora* beti / AINGERU ETORBIDEA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > astoa salgai



2010eko uztaila, Urduliz

Testua: **Beñat Vidal** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Frantses euskaldunarenak

Krisia behingoz joango al da, edo luzerako al du? Behin lanik gabe gelditu eta aurrezki guztiak galdu. Asto hau nork erosi behar du bihar nahi badut gosald, Kartela ere ipini baina gaur oraindik ez dut saldu.

Nahiz itxuraz ez, honek baditu abantailak alajaina! Garraio bide ona da zinez asto zuriaren gaina. Ferrari baten abiadura oraindik ez dauka baina, bidaia luze aspertuetan da konpainia bikaina.

Inork izan nahi badu astotxo zintzo, on honen bezero, bi telefono zenbaki daude eroslerik prest balego. Ni tratu gizon ondradua naiz, lruzurrik ez espero! Etorri eta diru kontua adostuko dugu gero.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

Luberr Basolanak, SL
Axe ibalertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea
Luzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta eralte lanak.
- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelkatzeta, seropila gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.
- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaitza apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

uk aldizkaria > ikasturte barria, atal eta kolaboratzaile barriak



UK-ren webgunea etengabe barritzen doa, sartu eta gozatu: www.ukaldizkaria.biz

Oporrak amaituta ekin dio UK-k ikasturte barriari, eta ohi legez, barritasunak ere iritsi dira gurera. Ondareak hartuko du garrantzia hemendik aurrera, hainbat atal barri medio. Zenbaki honetan irakur dezakezu *Ohi dan lez* atala: Fredi Paia algortarrak ekarriko digu Uribe Kostako kultura ondarearen barri, txoko ezezagunen eta bitxikerien barri emango du, eskualdea eta bere historia hobeto ezagutarazteko. Bestelako historiak ekarriko dizkigute David Crestelo plentziarrak eta Armando Llamosas algortar antropologoak, beti ere ondareagaz lotuta, *Plaza* atalean. *Nora joan*, barriz, gida bihurtuko da eta bertako proposamen bana ekarriko dugu orriotara zenbaki bakoitzean. Bestalde, harpidedunen iritzia jasotzeko kanpaina abiatu dugu, telefono bidezko galdetegiaren bidez. Gainera, UK zabalik dago beti iritzi artikulua eta proposamenak jasotzeko, animatu eta bidali testuak gure helbidera: uk@aldizkaria.biz. ○

getxo > biker berbalagun taldea, Bizarra Lepoanen nobedadea



Bardeetara egindako txangoa

Ohiturak aldatuz doaz eta bizimodu zein zaletasun barriei egokitu behar zaizkie, baita euskara arloan ere. Bizarra Lepoan euskara elkarteak ondo baino hobeto ikasi du ikasgaia eta hizkuntza praktikatzeko modu barriak asmatu ditu aurten: *Biker* berbalagun taldea sortu du. Beraz, bizikletan ibiltzea maite duzuenok, orain badaukazue aukera zaletasuna eta euskara, biak batzeko. Urritik ekainera, hilabeteko lehen zapatuan elkartuko da taldea beti, 09:00etan, Algortako Geltokia plazan. Era berean, inguruak ezagutzeko aukera izango dute berbalagunek, ibilbideak ez dira ez oso luzeak ez oso zailak izango, bide lasaiak lehiarik barik egiteko. Izena emateko deitu 685 732 963 telefonora edo bidali mezua egizugetxo@gmail.com helbidera. Egizu “*barne-turismoa, euskaraz, konpainia ezin hobean*”. ○

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...haria ...lehengo garaiak... ...itsasoa

www.saiaszgetaria.com / info@saiaszgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]

euskara > AEKn izena eman irailaren 29a baino lehen



Aurten Urdulizen eta Lemoizen ere eskainiko dituzte ikastaroak. UKBERRI.NET

“**Euskara? Bai, nahi dut!**” leloa aukeratu du AEK-k, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak, aurtengo matrikulazio kanpainarako. Irailaren 29ra arte izena eman daiteke Uribe Kostako AEK-ko edozein euskaltegitan, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara (euskaltegiaren arabera aldaketak egon litezke). Aurten barrikuntza asko dakar AEK-k. Garrantzitsuena da beste bi herritan eskainiko dituztela klaseak, Urdulizen eta Lemoizen. Bestalde, “*Hura ikusi, ha ikasi*” materiala lantzeko ikastaro berezia prestatu dute irakasleentzat, beraien mailari egokitutako ikastaro trinkoak eskainiko dizkiete ikastetxeetako ikasleei, eta autoikaskuntza metodo mixtoa abiatuko dute etxean ikasi gura dutenentzat, Ikasgel@. Horretaz gain, guraso taldeak jarraituko dute, bizkaiera ikasteko aukera ere izango dute. Eta ezin ahaztu udabarrian 17. Korrikak zeharkatuko duela Euskal Herria. Has zaitezke entrenatzen! ○

zinema > bost estreinaldi Zinemira atalean, Donostiako Zinemaldian



Sagarren denbora filma eskainiko dute, Alfonso Etxegarai Plentziako deportatuari buruzkoa

Zortzi pelikula eskainiko dituzte euskal ekoizpenen Zinemira atalean, Donostiako Zinemaldian; horietatik bost estreinaldiak izango dira: *Debekatuta dago oroitzea*, *Amerikanuak*, *La plaza de la musica*, *Sagarren denbora* eta *Ttaup! Ttaup! Arraun kolpeka*. Horrenbestez, Euskal Herrian ekoizitako lanik esanguratsuenak emango dituzte, bigarren urtez. Zinemaldiaren programazio orokorraren barruan dago atal hau eta edizio osoan zehar proiektatuko dituzte filmak. Gainera, Kimuak 2010eko katalogo barriaren lehenengo proiektzioa ere egingo dute. Bestalde, Zinemira gala egingo dute irailaren 22an, eta bertan estreinatuko dute *Debekatuta dago oroitzea* Txaber Larreategi eta Josu Martinezen filma. Gala berean emango diote Zinemira saria Alex Angulo erandioztar aktoreari. ○

[erretratua]



“Uretan sartu eta neska-mutilakaz batera surfean egon gura nuen”

Aketza Sanchez > Plentziako Cabo Billano Eskolako sortzailea

Urduri dagoela aitortuz hasi du berbalditxoa Aketza Sanchez Urubek. Biler batetik urten barri eta uretara sartzeko bidean harrapatu dugu berangoztarra. Ura, itsasoa; hori izan du pasio eta ogibide gaztetatik. Orain 14 urte Azkorri hondartzan eman zituen lehen surf ikastaroak, oraindino surfa jendarteratu barik zegoenean. Tebistako saio batean parte hartu eta munduan zehar bidaia ostean, gurean, itsasotik hurbil eta familia giroan, etxeko berotasunean, gelditu gura zuela sentitu zuen. Orduan, orain zortzi urte, jaio zen gaur egun bere bizitzaren ardatzetako bat den egitasmoa, Plentziako Cabo Billano Eskola: “*Uretan sartu eta neska-mutilakaz batera surfean egon gura nuen. Zutik jartzen ikusteak eta poztasuna transmititzeak egiten nau zoriontsu*”. Uribe Kostako surfleri ezagunenek Plentziako uretan eman dituzte lehen pausoak, uraren baretasunak Sopolako olatu handietatik urrun badago ere: “*Acero anaiak, Jon Garai, ni neu.... denak hasi gara Plentzian surfean. Kantera barria ere, Plentziatik urtetan ari da*”. Irailaren 25 eta 26an Surf Eguna egingo dute Cabo Billanoko lagunek: “*Gitarra, sua, hondartzan lo egitea... surfjaialdia da; udari agur esateko jaia gura zuten ikastaroetako gaztetxoek eta hori Plentzian egiten hasi ginen orain sei urte*”. Eguraldi ederra eta olatu onak opaz agurtu dugu Plentziako Eskolako ipurterrea. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan
Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO · BILBAO · GETXO · ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Emakumea: politikan, jendarte

Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak martxan du ikasturte barria; guztira, **zazpi ildo** landuko ditu eta **19 ikastaro** eskainiko dira urritik ekainera

IKASTAROAK

- **Jende aurrean hitz egiteko teknikak:**
-Urriak 21-abenduak 16 / 18:00-20:30
- **Mestizajearen literatura:**
-Urriak 20-maiatzak 25
- **Asilo-eskubidea generoengatikozazarpeneren aurrean: Jende eskubideetan oinarritutako erantzuna:**
-Azaroaren 12an eta 13an
- **Emakumeak kultur arteko elkarrizketan:**
-Hilean behin / 19:00-21:00
- **Nire gorputzaren bila:**
-Azaroaren 5ean eta 6an
- **Indarkeria ate azpitik sartzen uzten al dugu?:**
-Urtarrilak 31-apirilak 4 / 18:00-20:00
- **Amaren nahia, egitea eta negoziatzea:**
-Urtarrilaren 21ean eta 22an
- **Autodefentsa feminista:**
-Urriaren 29an eta 30ean
- **Txapa feministak sortzea:**
-Abenduaren 10ean / 17:00-21:00
- **Zer da feminismoa delako hori?:**
-Urtarrilak 11-martxoak 1 / 18:00-20:00
- **Feminismoa eta ekologia:**
-Apirilaren 8an eta 9an
- **Emakumeek "ez dakite"? Ekonomia politikoak:**
-Martxoaren 18an eta 19an
- **Sexualitatea lehen pertsonan:**
-Urriak 18-urtarrilak 24
- **Zoru pelbikoa laguntzea:**
-Urriak 18-azaroak 10
- **Ni zaindu, zu zaindu: amona zaintzaileentzako tailerra:**
-Urriak 20-abenduak 22
- **Lidergoa eta talde-lana:**
-Urriak 18-urtarrilak 17 / 17:00-19:00
- **Komiki femeninoan sartzen herri desberdinen bitartez:**
-Urriak 20-abenduak 22 / 19:00-21:00
- **Irakurketa feministak literatura:**
-Urriak 18-urtarrilak 17 / 19:00-21:00
- **Artea eta ekintza soziala:**
-Urtarrilak 14-martxoak 4 / 17:30-19:30



Aurreko edizio batean Jabekuntza Eskolak egindako txangoaren irudia

Emakumeek politikan eta gizartearen parte-hartzea sustatzeko helburuagaz jaio zen Jabekuntza Eskola eta horretan jarraitzen du. Getxoko Udalak, Ermuko, Basauriko eta Ondarruko Udalakaz batera antolatzen du Eskola. 2010-2011 ikasturterako joan den urteko eskaintza zabaldu dute Getxon; zazpi ildo landuko dituzte eskainiko diren 19 ikastaroetan. Guztien helburua, hausnarketarako, prestakuntzarako eta topaketarako espazioa sortzea da, emakumeek emakumeentzako egindako espazioa.

Kultura birdefinitzea, komunikazioa, elkartzasuna eta trukea munduko emakumeakaz, emakumeen nortasuna eta subjektibitatea, feminismoa, osasuna eta parte-hartze politiko-soziala izango dira aurtengo ildoak. Horiek lantzeko aurreko ikasturtean baino ikastaro bi gehiago

eskainiko dituzte (ondoko zutabearen aurkituko dituzu). Ikastaro bi egingo dira euskaraz: *"Jende aurrean hitz egiteko teknikak"* eta *"Irakurketa feministak literatura"*. Gaintzekoak, gazteleraz izango dira.

Izena emateko epea (aurrematrikulazioa) irailaren 23a arte egongo da zabalik Herritarren Arretarako Bulegoetan eta www.getxo.net web gunean. Gehienez ikastaro bitan eman ahal da izena. Aurreko urteetan bezala, emakume getxoztarrek lehentasuna izango dute. Plazak zozketatuko dira eta onartutakoen zerrenda urriaren 1ean emango da eza-gutzerara Romoko eta Villamonteko Kultur Etxeetan eta udal web gunean. Aurten ere, haurtzaindegi zerbitzua egongo da eta EHUK aukera askeko kredituak emango ditu plan zaharrekoentzat. ○

Ahogozo ederreko zinea

Zinema eta gastronomia urriko lehen egunetan



Pintxo txapelketa egingo dute Jaialdiaren barruan

Plazerra lortzeko eta sortzeko osagai bi nahasturik aurkeztuko dizkigute bigarren urtez Getxon egingo den Cinegourland Zinema eta Gastronomiaren Ikus-entzuzko Jaialdian. Irailaren 30etik urriaren 2a arte, proiektzioak, pintxo txapelketak eta zinea eta gastronomiagaz lotutako beste hainbat ekimen hartuko dituzte Getxoko kaleek. Aurten "gilda" omendu gura izan dute jaialdiaren antolatzaileek; izan ere, Rita Hayworth aktore ezagunaren formetan oinarrituta dago gure artean oso ezaguna den mokadu gozoa.

Guztira, nagusientzako lau eta umeentzako film luze bi proiektatuko dituzte jaialdian zehar. Nagusientzat *"Bottle Shock"* komedia, *"Soul Kitchen"* musikala, *"Julie & Julia"* biografia eta *"Creaciones"* dokumentala; umeentzat aldiz, *"LLuvia*

de albondigas" eta *"Wallace & Gromit"* marrazki bizidunak.

Proiektzioakaz batera, pintxo txapelketa egingo dute; Getxoko tabernek zineagaz harremana duten pintxoak prestatu eta jaialdian zehar eskainiko dituzte. Irabazleak 1.500 euro lortuko ditu. Horrez gain, kafe dastatze berezia eta sardina, gilda eta txokolate janak egingo dituzte Portu Zaharrean zein Areetan.

James Bond ezagunaren jarraitzaileek, Pierce Brosnan-en filmean ikusten diren Guggenheim inguruko txokoak bisitatze-ko aukera izango dute, Txinbito itsasontzian egingo den bisita gidatuan.

Jaialdia ixteko gala eta sari banaketa Sanjoserren Jauregian egingo da urriaren 1ean, 21:00etan. ○

Informazio gehiago: www.cinegourland.com

EUSKARA IKASTEKO DIRU LAGUNTZAK

"Denok batera, euskara aurrera! Animatu eta zatoz euskaltegira!" lelopean, euskara ikastera animatzeko kanpaina abiarazi du Udalak. Aurtengo kanpaina, gazteei, dendariei, gurasoei eta etorkinei zuzenduta dago batez ere. Udal euskaltegian, Lauaxeta AEKn, J.A. Agirren eta Bai&Bai eskolan urriaren 1a arte egongo da zabalik matrikulazio epea. Udalak diru laguntza emango dio aurten ere euskara ikasi gura duenari; DENDAKETAN ikastaroan parte hartzen duten dendariak zein AISA ikastaroan izena ematen duten etorkinak laguntzeaz gain, 12 urtetik beherako umeak dituzten gurasoak, zein 18 eta 23 urte bitarteko gazteak lagunduko dituzte. 2009-2010 ikasturtean, 1.133 lagunek ikasi zuten aurretik aipatutako euskaltegietan. Diru laguntza eskatzeko, euskaltegira zein Euskara Zerbitzura jo behar da.

APARKALEKU PLAZAK SALGAI AREETAN

Urriaren 6a bitartean egin ahal izango da Areetako Mesedeetako aparkalekuko 30 plazetako bat eskuratzeko eskaera. *"Aparcamientos de Getxo en Romo y Las Arenas"* izeneko enpresaren bulegoan (Campo Volantin 24, 5. solairua; Bilbo) egin behar da eskaera. Mesedeetako parkingean 366 plaza dago, horietatik 179 auzokoentzat dira eta 187 txandakakoak. Guztira, 1.165 plazatakoa da Romo eta Areetan lurpeko aparkalekuen udal eskaintza.

HERRIKO KIROL TALDEEN EMAITZAK SMS BIDEZ

Joan den denboraldian bezala, honetan ere herriko kirol talde nagusien emaitzak SMS bidez jasotzeko aukera egongo da. Doako zerbitzua da eta Udalaren <http://kirolak.getxo.net> kirol web orriko "SMS Zerbitzua" atalaren barruko "SMS Mezuak" lotura sakatutakoan eskatzen diren datuak betez aktiba daiteke. Besteak beste, Arenas Futbol taldearen, Getxo Rugbyko emakumezkoen eta Jolasetako belar hockey taldearen emaitzak jaso ahal izango dira.

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industriakoa
Etxalde 2 - Pabioi 11
48330 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

Saioa Olmo > artista

“Desioak gure ekintzen motorea dira; xaboi burbuilak, desio horien metafora”



Saioa Olmo artista bilbotarra

Diziplina bako desioakaz jolasteko proposamena egin zigun Saioa Olmo artista bilbotarrak GETXOPHOTO Jaialdian. Xaboi burbuilakaz jolastuz, desioen inguruan hausnartzen jarri zituen irailaren 4an Portu Zaharrera hurbildu zirenak, “Desioak puztuz” egitasmoagaz. Arte Ederrak ikasi zuen Olmok eta Leioako Kanpusean irakasle dabil. Ez du artea diziplina batez lotzen; medio ezberdinak erabiltzen ditu proiektuaren arabera. Gizartea eta kultura aztertzeke eta aldatzeke erabiltzen du artea, ikerketa estetikoak bigarren mailan utziz.

—Zelan definituko zenuke Portu Zaharrean egindakoa?

—Proiektua “Diziplina bako desioak” deitzen da; xaboi burbuilak eta desioak lotzen ditu. Desioak gure ekintzen motore bezala ikusten ditut. Xaboi burbuilak, desioen metafora dira; magikoak dira, guk forma ematen diegulako eta hegan egiten dutelako. Egoerak sortzen ditut eta publikoagaz sortzen den prozesu parte-hartzailea aztertzen dut. GETXOPHOTO, burbuilak egiteko gai-luak eman nizkien hurbildu zirenei;

horiekaz, burbuilakaz eta paisiakaz jolastu ahal zuten, enkoadraketak sortzeko. Horrez gain, lona bat zegoen, aisia eta desioak lotzen zituen ilustrazio bat; parte hartzaileek euren desioak idatzi zituzten bertan. Asmoa, desioak konpartitzea da, ozen esan eta konpartitzen dena serio hartzen baitugu.

—Ez da zaila jende ezezagunagaz desioei buruz berba egitea?

—Parte-hartzaileei zaila egiten zaie batean desio bat pentsatzea. Ez da erraza “zer desiratzen duzu?” edo “zergatik desi-

ratzen duzu desiratzen duzuna?” galderei erantzutea. Asteburuan (irailaren 11n) Madrilan egon naiz eta proiektu bera beste formatu batez egin dut. Kolaboratzaile bereziki eskatutako desioak pantaila erraldoian proiektatu ditut, diziplina bako desioak, ez-ohikoak. Nik uste jendeak ondo harrapatu duela transmititu gura nuen; desio zoroak idazten saiatu dira.

—Gustura gelditu zinen Portu Zaharreko esperientziagaz?

—Bai, oso gustura; hala ere, aldatu daitezkeen gauzatxoak ikusten ditut beti. Lekua polita zen eta jendeak ondo hartu

«Praktika artistikoa gizartea eta kulturari buruz berba egiteko erabiltzen dut»

zuen. Ez ziren umeak bakarrik izan jolastu zirenak; helduak ere animatu ziren. Hori garrantzitsua da, jolastea desio zoroak kanporatzeko modua baita.

—Desioak lantzen jarraitzeko asmorik?

—Uda osoa eman dut desioen proiektuan zentratuta, irailean hori guztia kalera eramateko hiru aukera eman dizkidatelako. Irailaren 27an Gasteizen egongo naiz arratsaldean, Judimendi enparantzan, nerabeei buruzko jardunaldi batzuen hasiera ekitaldian. Desioen proiektua eroango dut, formatu txikian.

—Proiektu honez gain, beste asko jarri dituzu martxan.

—Ideatomics (www.ideatomics.com) berba erabiltzen dut aurrera eroan ditudan proiektu guztiak biltzeko. Praktika artistikoa gizarteari eta kulturari buruz berba egiteko bide bezala erabiltzen dut; ez diot lehentasunik ematen ikerketa estetikiko-formalari. ○

<http://deseosindisciplinados.wordpress.com>

Sagardo deia Algortan

VII. Txalaparta Jaia ospatuko dute UKTEST taldeko lagunek irailaren 25ean



Publiko guztientzako ekimen herrikoia izango da VII. Txalaparta Jaia

UKTEST Txalaparta Taldeak VII. Txalaparta Jaia egingo du Algortako Zabala Eskolan, irailaren 25ean. Urtez urte, indarra hartzen doan ekimena da UKTEST-ena eta aurten ere, ttakun hosten artean, ez dira ume, gazte, nagusi zein helduentzako ekintzak faltako.

Sagardo deiagaz hasiera emango diote jaiari goizeko 11:00etan. Ondoren txalaparta txikien tailerrean euren instrumentua sortzeko aukera izango dute umeek. 12:30etik aurrera perkusio tailerra antolatuko du Mustapha Agharban perkusionista marokorak. Jarraian, sagardo kupelak zaldu eta Jone Uria eta Itxaso

Paia bertsolarien saioa entzun ahal izango da. Bazkarian ez da musikarik faltako; izan ere, kanta-liburuxkak banatu eta bertaratutakoak abesten jarriko dituzte Txalaparta Taldekoek.

Arrastian, 19:00etatik aurrera, Txalaparta ikuskizuna egongo da, Bediako Jotzen taldeko ikasleen eta flamenkoa eta txalaparta nahasten dituen Majaranbu taldeen eskutik. Egunari amaiera emateko txalaparta-poteoa egingo dute herriko tabernetan zehar.

Bazkaritarako izena eman gura duenak 658 700 405 telefonora deituz, zein egunean bertan erosi dezake tiketa. ○

IRAILAREN 30A ARTE BEGIRALE IKASTAROAN IZENA EMATEKO

Bizkaiko Urtxintxa Eskolaren eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartaren eskutik, Begirale Ikastaroa egingo da aurten ere Algortan. Urte bian zehar, 200 ordu teoriko eta 120 praktiko egin beharko dituzte gazteek Eusko Jaurlaritzak luzatutako titulazio ofiziala eskuratu ahal izateko. 2010eko abendua baino lehen 18 urte beteta izan behar dira ikastaroan parte hartu ahal izateko. Matrikulazio epea irailaren 30a arte egongo da zabalik eta Martikoena kaleko 16 zenbakian, 94 491 43 57 telefonoan edo bizarralepoan@euskalet.net helbidean egin daiteke.

GETXOARTE 2010EN LANAK ERAKUSTEKO AUKERA DAGO ORAINDIK

Getxoko Udalak Kultur Etxearen bitartez antolatzen duen Getxoarte 2010, Arte Sortu Berrien Aretoan lanak erakutsi gura dituzten gazteek, izena emateko aukera dute urriaren 6a arte, Villamonteko Kultur Etxean. Abenduaren 3tik 5era egongo da zabalik Areetako Geltokia Plazako karpa eta 60 proposamen ikusi ahal izango dira bertan. Parte hartzaileak, 35 urtetik beherakoak eta Euskal Herrian jaiok zein bertan ikasten daudenak izan behar dira. Artistek ezin izango dute hiru bider baino gehiago parte hartu jarraiak badira eta lau bider baino gehiagotan tartekatua badira.

AREETAKO LUDOTEKAN MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

2010-2011 ikasturtea martxan jarri du Areetako Kukupraka Ludotekak. Irailaren 22a arte izena emateko aukera dago. Aurreko ikasturtean bezala, astelehen, eguazten eta barikuetan 5-7 urte bitarteko umeak hartuko ditu Ludotekak; martitzen eta eguazten aldiz, 8-11 bitartekoak. Joan den ikasturtean bezala, hileko azken barikuan, jai tematikoa egingo dute.

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Leire Ortueta > ballet dantzaria

“Esperientzia errepikatuko nuke, gustura ibili naiz, asko gozatu dut eta mundua ezagutu dut”

Leioatik Londresera salto egin zuen Leire Ortuetak The Royal Balleten dantza egiteko. Hainbat urteren buruan etxera itzuli zen, baina dantzari lotua jarraitzen du; Andoni Arestiren eskolan dabil irakasle eta pilates irakasteko estudioa dauka.

—Gaztetatik erabaki zenuen dantzatzea, zure bizitzaren erdigune bihurtu zen balleta.

—Txikitatik dantzatu dut, Ion Beitiagaz hasi nintzen. Berak esan zidan dohaina nuela eta horretan jardun behar nuela. Beraz, 15 urteagaz ikasketak utzi eta buru belarri sartu nintzen dantzan. Handik urte bira joan nintzen Londresera, The Royal Ballet eskolara, Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren bekei esker.

—Nola egin zenion aurre horrelako bizitzari hain gazte?

—Balleta profesionalki dantzatzea erabaki nuenean, jo ta ke ekin nion konpainia bat bilatzeari, hainbat audizio egin nituen Londresera joan aurretik. Baina The Royal Balletek kontratatu ninduenean, lasaitua hartu nuen. Balleta oso zorrotza da eta lagundu zidan helburua lortzeko saiakera egitera. Bakarlarri izan nintzen eta izugarria izan zen. Asko gozatu nuen,



Estartetxe kalean dauka pilates metodoa irakasteko estudioa Ortuetak

mundu osoko koreagroakaz lan egin nuen, eta estilo klasikoa, garaikidea zein modernoa dantzatu ahal izan nuen. Ballet irakasle izateko ikastaroa egin nuen, baita pilates metodoa irakasteko ere.

—Eta dantzari lotuta jarraitzen duzu?

—Leioara itzuli eta orain pilates estudioa daukat, gustuko dut jendeari gorputza luzatzen eta tonifikatzen laguntzea. Dantzariak ere egiten dut pilates, Andoni Arestiren eskolan, Leioan.

Dantza ere irakasten dut bertan. Oso pozik nago.

—Gazteak animatuko zenituzke dantzatzera?

—Bai, nik barriz ere egingo nuke, oso ondo atera zait, asko gozatu dut, asko bidaiatu dut eta mundua ezagutu dut, Europa, Txina, Japonia, Amerika, e.a. Dantza gustuko badute eta dohaina badute, animatuko nituzke, baina oso gogor ekin behar dela jakin behar dute. ○

Zubia tranbiarentzat

Tranbia Sestaora eroateko **itsasadarra zeharkatuko** duen zubia eraiki gura dute



Zubi altxagarriak 150 metro luze eta 55 metro altu izango omen ditu

Oraindino ez dira hasi eraikitzen EHuko Leioako kanpua eta Barakaldo lotu gura dituen tranbia, baina dagoeneko Sestaora nola helarazi pentsatzen dabilta Eusko Jaurlaritzako Garraio saila eta Udala. Zubia egin gura dute itsasadarra zeharkatzeko; munduko zubi altxagarriak luzeena izango litzateke, 150 metrokoa.

2012an abiatu gura dituzte zubia eraikitzeko lanak. Altueran 55 metro neurtuko luke eta 60 milioi euro kostako litzateke. Beraz, tranbia egiteko 200 milioi euro inbertituko ei dituzte. Baina Eusko Jaurlaritzaren esanetan, ez dauka diru nahikorik egitasmoa abiatzeko, eta aurrekontuaren %90 enpresa pribatu

batek ordainduko du tranbia 35 urtetan ustiatzearen truke. Lehiaketa publiko birtartez aukeratuko dute enpresa.

Zatika egin gura dute tranbia: EHUtik Leioara, Leioatik Urbinagara eta Urbinagatik Barakaldora. Lehenengo fasea, EHuko kanpua eta Leioako metro geltokiaren artekoa, 2011n hasi gura dute, 20 hilabete iraungo luke obrak eta 37 milioi euro kostako litzateke. Barakaldo arteko obra, barriz, 2013an hasteko asmoa daukate, baina oraindino ez daukate proiekturik.

Bestalde, Lamiakon tranbiaren autoak gordetzeko tokia egingo dute, uztailean ipini zuten lehen harria eta datorren urteko neguan amaituko ei dute. ○

TXOPOETAKO JAIK, IRAILAREN 24TIK 28RA

Txopoeta auzoko Mikel Deunaren jaiakaz amaituko da Leioako jaien 2010eko denboraldia, ohi legez. Eta ez da girorik faltako lan eta lan baitabil jai batzordea prestaketa lanetan, auzotarrek ondo pasa dezaten: umeentzako jolasak eta jarduerak, berbenak, herri bazkaria, luntxa, dantza eta herri kirol erakusketak, txokolate jana, mus zein mozorro txapelketak... Badago zer aukeratu, beraz anima zaitetz, udazkeneko hotza etorri orduko!

LAMIAKON BESTE 55 ETXE BAIMENDU DITUZTE

Eraikin zaharrak bota eta barriak egiten jarraitzeko asmoa dauka Udalak Lamiakon. Barriki eman dute beste 55 etxebizitza egiteko baimena Lamiako-Txopoetako Barne Erreforma eta Birgaitze Plan Bereziaren baitan, denak salmenta librekoak. Inguruan zutik dagoen azken eraikina urtea amaitu aurretik eraitsiko dute, ALESA lantegia, jarduera jarraituko duen tokira aldatutakoan.

HORMAETXEA DA ONENA AURRESKUAN

Ondizen jokatu zuten Bizkaiko Aurresku Txapelketa irailaren 5ean eta Haizea Hormaetxea leioaztarrak irabazi zuen nesken mailan, beste behin. Oraindik orain, emakumeek eta gizonek bakoitzak bere aldetik parte hartzen dute; Arkaitz Pascual sestaoarrak irabazi du azken horretan.

JAGOLEENTZAKO ZERBITZU PSIKOLOGIKOA

Udalak barru abiatu du mendekotasuna duten pertsonen jagoentzako doako zerbitzu psikologikoa, Bizkaiko Aldundiaren laguntzagaz, ZAINDUZ egitasmoaren barruan. Izena emateko 94 623 27 44 edo 609 33 59 50 telefonoetara deitu behar da.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

THE BEST
INCORPORATED

ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



Bizkaiko Urtxintxa Eskola

ASTIALDI ETA SUSPERTZE SOZIOKULTURALEKO

IKASTAROAK

Tel: 94 432 04 45



MATRIKULAZIOA
irailaren 1etik 30era arte

- Astialdiko Begiralea *Algortan*
- Astialdiko Zuzendaria
- Jendarte Kultur Dinamizatzailea
- Hezkidetzan Aditua
- Kulturarteko Hezkuntzan Aditua

www.urtxintxaeskola.org

[erandio]

Lebis Abarka eta Emilio Garcia > mendizaleak

“Kurduak abegikorrek eta alaiak dira, baina bizi-baldintza oso gogorrek dauzkate”

Kurdistango mendirik altuena igo zuten abuztuan Lebis Abarka eta Emilio Garcia erandioztarrek, zortziko talde batean, hungariarrakaz eta txekiarrakaz. Ararat da mendia eta 5.137 metro ditu. Hegoalde Elkarrean bidaiari buruzko diaporama eskaini zuten irailean, eta UK-ri berba batzuk zuzentzeko beta izan zuten.

—Bosmilakoa egin duzue, nolakoa da Ararat mendia?

—(L) Sumendia da, teknikoki erraza. Bosmila metro dauka eta lautada batean dago, ez inolako mendi katetan, eta hori erakargarria da.

—Mendiaz gain, Kurdistan ezagutzeko aukera izan duzue?

—(L) Egun gutxi izan genuen, baina tartea atera genuen turismoa egiteko. Bertoko jendeagaz ibili gara, mendiko gida kurdua zen. Euskal Herritik gindozela azaldu genien eta euren egoeraz alderatzen zuten, nahiko ondo ulertzen zuten.

—(E) Hasieratik argi eta garbi uzten dute kurduak direla, eta ez turkiarrak.

—Aurretik eginda zeneukaten garaiera bereko beste mendirik?

—(L) Nik bai, Hego Amerikan.

—(E) Nik ez, baina ondo konpondu



Turkiak hartutako Kurdistanen dago Ararat mendia

naiz. Gida geneukan, han derrigorrezkoa da. Hainbat urtetan itxita egon da zonaldea, borroka armatua aktiboa izan da urtetan, orain ez da zona oso beroa eta turismoari zabalduz doaz, baina ezin da norbere kabuz joan.

—(L) Nomadak bizi dira inguru hartan, kanpamentuetan, lautada handia da eta. Gatazka aldetik lasaiago dago orain, baina uneoro daude militarren kontrolak toki guztietan. Hartuta eta gerran dagoen herria dela da sortzen duen sen-

tipena. Halere, ez dugu arazorik izan.

—(E) Bestalde, pobrezia sumatzen da kurdu nomaden artean, kanpadendetan bizi dira. Baina agian ez dute sentitzen euren burua pobre. Iritsi eta aske direlako sentipena izan genuen, abegikorrek eta alai-alaiak dira, baina bizi-baldintza oso gogorrek dauzkate.

—Badaukazue beste erronkarik buruan?

—(L) Itzuli gura genuke, baina talde osoa, zortziak erandioztarrak izatea. ○

Euskal dantzak ikasi

irailetik urrira astelehenero, **AIKO** taldearen tailerretan, **Dantzaldi Ibiltarian**



Informazio gehiago eta matrikula egiteko: www.aikotaldea.com edo 646 336 147

Erromerietan fandangoa entzun eta parte hartzeko irrikaz bazterrean geratzen zara? Orain duzu aukera egoera iraultzeko, euskal dantzak ikasteko eta gozatzeko; izan ere, barriro abiatu behar dute Dantzaldi Ibiltaria Erandion eta Bizkaiko zein Gipuzkoako hainbat herritan.

AIKO taldeak eskainiko ditu ikastaroak Altagako Merkatu Zaharrean astelehenero, hastapena 18:30ean eta trebakuntza 20:00etan. Baina egun hori txarto badatorkizu, Sopelara joan zaitezke, han eguaztetenan egingo dute ikastaroa, Urko Kiroldegian.

Baina ikasitakoa plazaratu behar da trebatzeko, hori dela eta erromeria anto-

latuko du hilean behin AIKOk Plate-ruenan, Durangoko Kafe Antzokian. Aukera parebakoa izango da beste herrietako ikasleak ezagutzeko. Gainera, alde aurretik izena eman beharrik gabe, zuzeneko musikaz eta dantza maisuen partaidetzaz gozatu ahalko da. Antolatzaileek diotenez, “*bilera hauek giro lasai eta ego-kia eskaintzen dute dantzatzu ondo pasatzeko*”.

Parte hartzeko matrikula egin eta 100 euro ordaindu beharra dago bederatz hilaletako ikastaroaren truke. Taldearen webgunearen bitartez egin daiteke, www.aikotaldea.com, edota 646 336 147 telefonora hots egin. ○

ERANDIOKO ERAIKIN BITXIAK ERRETRATATUZ

Aurtengo argazki lehiaketak herriko eraikin bitxiak hartu ditu gaitzat. Edozeinek parte har dezake eta urriaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira irudiak Udaleko Kultura sailean edo Astrabuduko Udala Bulegoan. Informazio gehiago eta lehiaketaren oinarriak topatuko dituzu www.erandio.net gunean.

MUSIKA ITSASADARREAN ENTZUTEKO AZKEN AUKERA, HILAREN 24AN

Iraila osoan itsasadarrean musika entzuteko aukera izan da barikuro, Txurruka pasealekuan. Udaleko Gazteria sailak antolatu ditu musika-kontzertuok, zenbait estilo uztaiz: *dixie*, *jazza* edota *bluesa*. Bada, barikua 24an izango da azkena, Jazz Fusion Deluxe taldea arituko da taula gainean 20:00etatik aurrera.

www.marmaramusik.com

OSASUN JAIA EGINGO DA UNBEN IRAILAREN 25EAN

Bizimodu osasuntsua eta ingurugiroaren babesa sustatzeko eta alkoholduen edarien zein tabakoaren kontsumoa prebenitzeko xedea duten jarduerak jolasgarriak burutuko dituzte irailaren 25ean Unben, Osasun Jaian; aurtun hamazortzigarrena izango da eta Udaleko Drogomenpekotasun sailak antolatuko du, betiko legez.

GAUTXORIK ERAKUTSIKO DU GURE HISTORIA

Irailaren 27tik urriaren 9ra egongo da ikusgai *Nafarroa Euskal Estatua* erakusketa udaletxeko erakusketa aretoan. Gautxori Kultur Elkarrean antolatu du eta 18:00etatik 20:30era bisitatu ahalko da. Nabaralde elkarteak laburbildu du mendeetako euskal historia. Erandioko Gautxori elkarteak aurkeztu gura ditu orain historiaren oinarriko elementuok, “*erakusketa argiaz, esanguratsuz eta pedagogikoaz*”.

Terrera 2
48990 ALGORITA
64 491 12 71
instielgorte@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

Turikaldei

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T. 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T. 490 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

Zure publikitatearen hemen
Zure publikitatearen hemen
Zure publikitatearen hemen

Tf. 94 491 13 37

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54

www.arlan.biz

BERTSOTAN IKASI GURA DUZU?

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak bertsolaritza ikastaroa abiatuko du urrian Kurtzio Kultur Etxean, abendura arte iraungo du. Izena eman behar da irailean zehar Mankomunitateko bulegoan eta hilean 10 euro ordaindu beharko da. Eguazteneko ipini dute hitzordua 18:00etatik 20:00etara. Ekimen honegaz "altxor parebakohau" zabaldu gura dute, "euskararen ezagutzan eta aberastasunean sakontzeko aukera anitzak eskaintzen baititu bertsolaritza". Bertso politagaz aurkeztu dute ikastaroa: "Neurriz eta erimaz, kantatzea hitza, horra hor zer kirol mota, den bertsolaritza".

DANTZALDI IBILTARIA SOPELARA ERE IRITSI DA

Dagoeneko aurkeztu dute ikasturte honetako Dantzaldi Ibiltaria. Urritik ekainera garatuko da dantza ikastaroa Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbait herritan, Uribe Kostako Sopela eta Erandio tartean. AIKO taldeak eskainiko du, ohi legez, eta bere helburua dantza Bizkaiko bazter guztietara zabaltzea da, tailer, ikastaro zein dantzaldi-erromerien bidez. Sopelan eguazteneko izango dira ikastaroak, hastape-na 18:30etik 20:00etara eta jarraipena 20:00etatik 21:30era. Baina izena eman aurretik, AIKO taldeak doako aurkezpen-tailerrak eskaini ditu herriz herri, erabiltzera doazen metodologia ezagutarazteko asmoz.

Matrikula egiteko:
www.aikotaldea.com/ibilprogramacion.htm

TURISMO BULEGOAK IRAILEAN ERE ZABALIK

Irailean eta urrian ordutegia moldatu dute Sopelako Turismo Bulegoak eta Informazio Puntuak. Biek ala biek izango dute ordutegi berbera, zabalduko dituzte astehelentetik zapa-tura 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, eta domeketan 10:00etatik 14:00etara. Sopelak maiatzean barritu zuen iaz lortutako Turismo Kalitatearen Q ziurtagiria.

Iragana berreraikiz

Sopelako iragana ezagutzera emango dute **ondareari buruzko jardunaldietan**, urrian



Uribe Kostako eta Bizkaiko beste hainbat herri ere parte hartuko du Jardunaldietan

Arkeologiaren bitartez aurkitutako aztarnakaz, "herriaren iragana berreraiki ahal izango" dute Sopelan datorren hilean, Ondarearen Europako Jardunaldien baitan. Sopelak lehenengoz parte hartuko du Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako jardunaldietan.

Hiru ekimen prestatzen dabilta, oraindik data zehatzen barri eman ez badute ere: hitzaldia, erakusketa eta ibilaldia.

Hitzaldian azalduko dituzte Jose Miguel de Barandiaran XX. mende hasieran ikerketak egiten hasi zenetik uda-

lerrian egin lan arkeologikoak. Erdi Paleolitikotik Erdi Arorako tartea birpatsuko dute, Goi Paleolitikotik, Mesolitikotik, Neolitikotik, Burdin Arotik eta Erromatar Garaitik igaroz.

Erakusketan, herriko historia erakutsiko dute, Azkorri zein Barinatxeko labarretan, Munarrikolandan eta herrigunean topatu aztarnei jarraituz, orain 40.000 urteko honako aztarnak. Munarrikolaraino ere hurbilduko dira ibilaldian, duela 5.000 urteko hilobiak bisitatzera. Laster eskainiko dute informazio osoa Udaleko webgunean. ○

Javi Zugazaga > idazlea

"Liburuagaz gustuko nuke ohartaraztea gizakien arteko harremanen garrantziaz"



Orri batzuk irakurtzeko: oficinadehechos.blogspot.com

Luciernagas y mariposas eleberria kaleratu du Javi Zugazagak. Gizakien arteko harremanetan sakondu gura izan du bere lehenengo nobelan.

—Argentinaren bat du protagonista zure nobelak.

—Iñaki, bai. Bi istorio kontatu ditut, berea eta bere aitarena, argentinarra dena; Bilbon 2008an gertatzen da bata, Argentinan 1978an bestea. Alkarregaz nahasten dira istorioak. Aitak dokumentu bat idatzi zuen 78an garaiko diktaduraren aurka, orduan Videla zegoen boterean Argentinan, Iñakiren ama nola ezagutu zuen kontatu dut, azken batean, Iñakiren istoriotik abiatuta, gurasoena ere kontatu dut. Sukaldaritzako arteak ere garrantzi handia dauka. Horregaz batera, kritika egin diot egungo sistema ekonomikoari. Baina funtsean gizakien arteko harremanei buruz berba egin dut. Kointzidentziak oinarrituko dira. —Zer transmititu gura izan duzu?

—Gustuko nuke jendea ohartzea gizakien arteko harremanen eta laguntasunaren garrantziaz. Horra hor liburuaren errezeta: maitasuna, drogak, denbora, sukaldaritzak, musika, politika, Argentina, iraultza eta laguntasuna. Ontzi batean sartu, sutan jarri eta kontu handiz nahastu. Ondo eginda zerbitzatu eta atseginez dastatu.

—Nolatan animatu zinen liburua idaztera, eta nondik dator istorioaren ideia? —Natxo lagun argentinaren baten bizitzan

«Lagun argentinaren baten bizitzan oinarritu naiz eta istorio bi kontatu ditut»

oinarritu naiz. Eleberri bat idatzi gura nuen, oso gustukoa dut irakurtzea. Lagun batzuek eskaini zidaten aukera, liburua eurek argitaratuko zidatela.

—Idazten jarraituko duzu?

—Bai, gustuko esperientzia izan dut eta dagoeneko beste nobela batezaz nabil, luzeagoa, sakonagoa, indartsuagoa. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta banakuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net



EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

MANKOMUNITATEAREN ZERBITZU GIDA BARRIA

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak zazpi udalerrien zerbitzu gida argitaratuko du. Berango, Lemoiz, Gorliz, Plentzia, Barrika, Urduliz eta Sopolako mapak, telefono zenbakiak eta intereseko informazioa plazaratuko dute gidan. Gainera, herriz herri egitekoak diren ekitaldiak, turismo zein eraikin esanguratsuenen informazioa eta zonaldeko ibilbideen barri ere eskainiko du.

BERDINTASUN ETA GAZTERIA SAILAREN JARDUERAK PREST

Urriaren ekingo diete Berdintasun eta Gazteria sailek ikasturte honetarako prestatu dituzten jardueri. Berdintasunari dagokionez, ejerzidancing zein oratoria ikastaroak egingo dituzte, eta Irakurtzeko Kluba abiatuko dute urriaren 26an. Horieta gain, Zine Foruma egingo dute hil bakoitzeko bigarren egunean Berangoeta Kultur Etxean, 18:30etik 21:00etara, gura duen ororentzat. Bestalde, Gazteria sailak antolatu ditu magia, clown, zur lanketa eta street fusion dantza ikastaroak. Sail bietako ekimenetan parte hartzeko izena eman daiteke Santa Ana eta Berangoeta Kultur Etxeetan, hainbat prezio daude, herrian erroldatukoentzat eta erroldatu gabeentzat, eta ikastaroen iraupenaren arabera.

Informazio gehiago:
berangokoemakumeak@gmail.com eta
berangokogazteak@gmail.com

Garaizar barrikuntzak

- igeltsaritzak orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 600 952 597 • reparazar@bouskalmel.net
Eskola kalea 1 • ALGIORTA



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARRREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 84



Milia lasterketa, urriaren 2an

Aurten **300 lagunek parte hartzea espero dute** Berangoko Milia antolatzaileek



Izena emateko: Kultur Etxean, 94 668 09 55 fax zenbakian edota berangokoudala@berango.org

Berangoko Milia lasterketa bitxia da, Milia bat korrika egiten baitute parte-hartzaileek, 1.609 metro. Horrexek nabarmetzen du gainontzeko korrikaldien artean. Herriko Atletismo Eskolak eta Udalak urtero antolatu ohi dute eta aurten urriaren 2an ipini dute zita, zapatu arrastian, Gobelalde kalean. Arrakastaz gainera, ospea ere lortu du probak, gisako lasterketen mailan onenen artean kokatu dute.

Zazpi maila daude emakumeetan eta gizonezkoetan banatuta: haur, kadete, gazte, junior, beterano, herritar eta federatu, eta elite. Arrastiko 19:05ean urtengo da

azken maila hori. Gainera, Berangoko Atletismo Eskola eta Egokitutako Bizikleta mailetan ere egiten dute lasterka. Proba bakoitzean gutxienez hiru lagunek eta gehienez 40k egin behar dute korrika; eta aurten, 300 lagunetik gora parte hartzea espero dute antolatzaileek.

Hainbat bide dago izena emateko: Kultur Etxean, 94 668 09 55 fax zenbakian edota berangokoudala@berango.org helbidean. Irailaren 27tik urriaren 1era bitartean egin behar da, 18:00etatik 20:00etara.

2009an Juan Carlos Higuero eta Adrienne Herzogek irabazi zuten. ○

I. Esaera Zaharren Txapelketa > irailaren 25ean

“Eskaintza kultural euskaldun eskasari aurre egin gura diogu”



I. Beitia, N. Iburgengoitia eta A. Zarauza, Txapelketako antolatzaileak

Sopolakoari lekukoa hartu eta I. Esaera Zaharren Txapelketa antolatu dute Plentzian irailaren 25erako. Ekimenaren bultzatzaileak, herrian euskal kulturagaz lotutako eskaintza kultural eskasari aurre egiteko abiatu zuten txapelketa. 60 esaera, 3ko taldeak eta Etxahun Lekue eta Uxue Alberdi bertsolariak; hori guztia giro jatorraz apainduta, Plentzian egun ederra bizitzeko aukera parebakoa.

—Zerk bultzatu zaituzte Txapelketa antolatzerantz?

—Sopolako Esaera Zaharren Txapelketan parte hartu ohi dugu eta nahiko “fan” gara. Gure artean burua berotzen hasi ginen, baita antolatzerantz animatu ere. Euskal Kulturagaz zerikusia duen ekimenik ez dago Plentzian, gauza txikiak edo umeei bideratutakoak ez badira. Modu aktiboan parte hartzerantz bultzatzen duen zerbait egin gura genuen.

—Zelakoa izango da?

—Parte hartzaileei 60 esaera zahar bidali dizkiegu e-postaz, ikas ditzaten. Hiruko taldeak egin eta bertsolariet botatako bertsoari zein esaerari dagokion asmatu behar dute. Bitartean herrian zehar, po-teoan joango gara. Eguerdian bazkaria egingo dugu Jai Alai pilotalekuan eta «Izen ematea PTBn, Goñi Portalen, Topalekuan edo e-postaz egin daiteke»

bertan ezagutuko ditugu irabazleak.

—Zer egin behar da parte hartzeko?

—Izena emateko epea 15ean amaitu bazen ere, lehenbailehen eginez gero aukera dago oraindik; e-postaz, Goñi Portalen, PTBn edo Topalekuan. Parte hartzeagatik bost euro besterik ez dira ordaindu behar; bazkariagatik 13. Sari gozoak egongo dira! ○

esaerazaharrakplentzian@gmail.com

tanta.
estetika

Basagoiti etorbidea 85 (Algorta)
Tf: 645 739 780
Zure beharren araberako ordutegia

BASTRINTA



URDULIZ

Teléfono: 948 761 128

OSKIBIDE HORITZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontia
- Periodontia
- PADI

Bidulari 27. behe solaria
ALGIORTA
94 430 76 96



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 - ALGIORTA
Tf. 94 430 64 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

Tf. 94 676 07 15

HELDU ETA UMEENTZAKO IKASTAROAK LEMOIZEN

Hilaren azken egunera arte Kultur Etxean egongo da Lemoizko Udalak antolatutako ikastaroetan izena emateko aukera. Helduentzat pintura, eskulanak, gimnasia teknikak, yogapilates eta yoga ikastaroak daude. Umeentzat (15 urtetik beherakoak) aldiz, arte tailerra, yoga, pala eta dantza klasikoa. Familia ugarietako jubilatuak udal diru laguntzak eskatzeko aukera izango dute.

EKINTZAZ BETERIK DATOR IRAILA PLENTZIARA

Goñi Portalek martxan du 2010-2011 ikasturtea. Alde batetik, trukerako eta jolaserako gunea sortzeko helburu duen Udal Ludoteka ireki dute. Astelehenerik barikura arrastiko 16:30etik 19:30era dago zabalik eta 5-11 urte bitarteko gaztetxoek parte hartu ahal dute. Horrez gain, hilaren 30a arte "Comprometidos con Anantapur" argazki erakusketa egongo da ikusgai. Bestalde, urriaren 3an Pasaian egingo den Kilometroak jaialdira joango den autobusean izena emateko aukera dago.

28 ETXEBIZITZA BABESTU URDULIZKO KAREABIN

Kareabi kalean, Urdulizko futbol zelaiaren atzean, 28 Udal etxebizitza babestu egiteko proiektua onartu du Udalak. Aurreikusitakoaren arabera, urria amaieran hasiko dira eskaintza eta gauzatze prozesuak. Etxeak, bat, bi edo hiru logelatakoak izango dira.

URIBE KOSTA

Irailean euskara ikastaroetan izena ematea



Gorliz eta Sopelako euskaltegietan izango dira eskolak

Ikasturtea martxan da dagoeneko eta han edo hemen izena emateko ordua heldu da. Uribe Kostako Mankomunitatean parte hartzen duten Udalek, Euskara Zerbitzuaren bitartez, ikastaro sorta presatu dute euskara ikasi gura dutentzat.

Alde batetik, gurasoentzako 100 orduko ikastaroak egingo dituzte, bakoitzak dagokion mailan ikas dezan. Guztira 100 ordu izango dira, hiru ordu astean. Bestetik, AISA etorri barrirentzako ikastaroak egongo dira aukeran. Euskal Kultura

ezagutaraztea eta euskararen lehen pausoak ematea dira ikastaro honen helburuak. 60 ordu izango dira guztira, 4 ordu astean. Azkenik, dagoeneko euskara dakitenentzat, bizkaiera ikastaroa egingo dute, gure euskalkira hurbildu gura dutentzat. 120 ordu izango dira, 3 edo 4 ordu astean.

Izen emateko epea irailean egongo da zabalik eta Sopelako Udal Euskaltegian (Enrique Urrutikoetxea 10) eta Gorlizko AEK Euskaltegian (Iberrebarri plaza 5) egin behar da. ○

Ira. 20 - Urr. 4

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

► **Comprometidos con Anantapur, argazki erakusketa.** Goñi Portalen. Irailaren 30era arte.

GETXO

► **Gonzalo Iribarnegarayren argazkiak.** Tamarises hotelean. Urriaren 1a arte.
► **Getxophoto argazki jaialdia.** Urriaren 3ra arte. Doan.

LEIOA

► **Paisajes de luz.** Kultur Leioako erakusketa aretoan. Irailaren 23tik urriaren 31ra.

ERANDIO

► **Nafarroa euskal Estatua.** Udaletxeko erakusketa aretoan. Irailaren 27tik urriaren 9ra, 18:00etatik 20:30era. Doan.

MUSIKA

ERANDIO

► **Jazz Fusion Deluxe.** Txurruka pasealekuan. Irailaren 24an, barikua, 20:00etan. Doan.

► **Dantzaldia orkestragaz.** Alzagako Irailaren 23a plazan. Irailaren 26an, domeka, 18:00etan.

GETXO

► **Sinfonietta Ricercare, kontzertu klasikoa.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Urriaren 2an, 19:00etan.

ZINEMA

LEIOA

► **Mugarik gabe zirkuitua.** Kultur Leioan. Urriaren 4tik 7ra. Gonbidapenagaz.

Irailaren 24an da hitzordua Eskoletako plazan, 23:00etan

► **Musika**
Gose taldea Areetako Mesedeetako jaietan

Mesedeetako jaiak amaitu dira udako festak Getxon, Areeta auzoan. Aurten indarra egin dute kontzertuak eta Gose taldea ekarriko dute irailaren 24an, barikua, 23:00etan. Ohiko legez, Eskoletako plazan izango dira kontzertuak eta bestelako ekimenak. Azken urteotan arrakasta lortu dute arrasatearrek Euskal Herri osoan, makina bat kontzertu eskaini dute udan herriz herri. Estilo bereziak nabarmentzen ditu, trikitixaren eta tekno-musikaren fusioak egin ditu ezagun. Areeta ondoren bisitatuko dute Kilometroak Gipuzkoako ikastolen jaia, Pasaia-Lezon, urriaren 3an. Eta martxak jarraituko du Durangon, Ordizian... "Sutan gaude, hau inork itzali arte..."

• **Non:** Areetako Eskoletako plazan • **Noiz:** Irailak 24, 23:00etan

ANTZERKIA

ERANDIO

► **A ultima hora.** Emakumeak eszenan zirkuitua. Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Irailaren 25ean, 19:30ean. 2 euro.

LEIOA

► **Tres.** Kultur Leioako Auditoriumen. Urriaren 2an, 20:30ean. 15 euro.

BESTEAK

ERANDIO

► **Argazkigintza digitala ikastaroa.** Irailaren 18tik urriaren 9ra, 10:30etik 13:30era.

► **Osasun Jaia.** Unben. Irailaren 25ean, zapatua.

► **Haur parkea.** Astrabuduko Josu Murueta plazan. Irailaren 26an, domeka.

► **Emakumeentzako autodefentsa eta graffiti ikastaroak.** Irailaren 30etik aurrera. Doan.
► **Piraguak mailegatzeko zerbitzua.** Alzagako ontzireleku. Zapatueta eta domeketan, 10:00etatik 14:00etara. 695 268 710.

LEMOIZ

► **Euskaraz olgetan.** Armintzako portuan. Irailaren 20an eta 27an, 17:00etatik 19:00etara.

GETXO

► **Skate ikastaroa gazteentzat.** Arrigunagako skate pistan. Irailaren 20tik urriaren 17, 17:30etik 19:00etara. Euskaraz eta doan.

SOPELANA

► **Sopesex.** Kurtzio Kultur Etxean. Irailaren 21ean eta 28an, 18:00etatik 20:00etara.

► **Euskaraz olgetan.** Urgitxieta plazan. Irailaren 26an eta urriaren 3an, 12:00etatik 14:00etara.

PLENTZIA

► **Euskaraz olgetan.** Astilleron. Irailaren 23an eta 30ean, 17:30etik 19:30era.

► **Esaera Zaharren I. go Txapelketa.** Eleiz enparantzatik abiatuko da. Irailaren 25ean, zapatua, 11:00etan. Izen-ematea 5 euro, bazkaria 13 euro.

► **Surfeguna.** Irailaren 25ean eta 26an.

LEIOA

► **Txopoetako Mikel Deunaren jaiak.** Irailaren 24tik 28ra.

GORLIZ

► **Euskaraz olgetan.** Iberrebarri. Irailaren 25ean eta urriaren 2an, 12:00etatik 14:00etara.

URDULIZ

► **Ibilbide turistiko-kulturala.** Gernikatik Bermeoraino. Urriaren 2an, 09:00etan Urduliztik. 10 euro.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Motorrak berotzen

Stroopers Gorlizko motorzaleen elkarteak antolatuta, motor erabiltzaile eta zaleen bilera egin zen irailaren 11n Gorlizen. Goizeko hamarretan hasi eta gauera arte luzatu zen egitaraua. Ibilalditxoa, trial erakusketa, bazkaria, motorzaleen poteoa, Herri Torrontegi eta Efren Vazquez gidariei omenaldia... 400 lagunetik gora batu ziren guztira eta gure inguruan zaletasuna badagoela erakutsi zuten.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Ereagan

ugazabaren zain

Getxoko Ereaga hondartzako markesina duzu irudian. 1920ko argazkia da eta Getxoko Udal Liburutegiaren artxiboan gordeta dago. Esanguratsua da oso, inguruko oparotasun ekonomikoaren adierazle. Garaiko auto dotorearen matrikula ere horren adierazle, garai hartan Bizkaian kotxeak milaka batzuk besterik ez ziren. Gainera, autoaren atzean ikus daiteke gidaria, egonean, Aretako edo Neguriko ugazabaren zain, ziur aski; bainua hartzen edo aperitiboa dastatzen egongo zen. Ehun urteren buruan, formak aldatu dira agian, baina ez hainbeste egoera...

[berbetan]

1964ko Langileen Egunean jaio zen Joxe Mari Agirretxe *Porrotx* Lasarte-Orian. Ikasketak gaztelaniaz egin zituen, euskara ia ahazteraino; ondoren, 5 urte emon zituen AEKn ikasten eta Irakasle Ikasketak ere euskaraz egin zituen. 23 urte gaz pailazo beharrean hasi, eta ordutik, langile fin beti, koloretako mundu irribarretsua amesten laguntzen digu. Areetako ikuskizuna baino egun batzuk lehenago egin dugu berba beragaz: *Pirritx*, *Porrotx* eta *Marimototsen* abestiak kantatu dizkigu, ikuskizun barriaz zer edo zer aurreratu digu, Askapenagaz Palestinan oraintsu egindako brigada kulturalaz ere zer bait kontatu digu, eta ume palestinarren irriaz... Hamaika herri eta koloretako munduaz jardun du.

Joxe Mari Agirretxe

zuontzat, zentzudun musuok!

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Txikitan maisu edo futbolari izateagaz amesten ei zenuen.

—Errealean ere jokatu nuen txikitan! Kanpotarrekin hasi zirenean Athletic zale egin nintzen! Denak maite ditut, baina “forofis-motik” at! Denen garaipenekin pozten naiz! Majisteritza ere egin nuen; oso ibilbide motza (laburra) izan zen, pailazogintzan 23 urterekin hasi nintzelako.

—1987an, herrigintzatik jaio zineten; ordutik hainbat aldaketa... hazi eta arrakasta lortu. Urrun daude orduko helburuak?

—Aldatu baino garatuz joan dira. Helburuak euskara eta alaitasuna uztartzea ziren, eta kalera ateratzea euskarazko jarduerak, euskara eskolatik eta etxetik kalera ateratzea; modu alaietan. Urteak aurrera joan ahala, baloreak gehitu dizkiogu gure lanari, saiatu gara behintzat. Hasieran arrautzekin *sketch*-a egiten genuen: Takolok tortilla egin behar zuela eta... (orduan ez genekien bazeudela gomazko arrautzak dendetan), arrautza egosi, eta errotulagailuarekin puntutxo bat egiten genion; berak hori aukeratu, airera bota, zartagina jarri, eta ez zen puskatzen! Bera olio bila zihoanean, gu

saiatu eta arrautza guztiak puskatzen genituen! Urteak joan ahala, geure buruari galdetu genion ea pailazo bizitza arrautzak puskatzen eman behar genuen; oso ondo pasatzen genuen euskaraz, algaraka... Baina, haurrak genituen aurrean, gurasoak ere, guri begira; gure hitzak, eta jarrerak ere batzuetan, kopiatzen zituzten, ereduak ere baginen maila batean, helduok haurrentzat toki guztietan garen bezala. Eta hor pentsatu genuen euskarari eta alaitasunari baloreak eransten joatea, eta haurrek, familiek,

“Azaroan jaioko dira Pupu eta Lore; horien heziketan arituko gara datorren proiektuan; umeen heziketa nola egin”


denok oro har egunerokotasunean bizi ditugun gaiak geure ikuskizunetan ere txertatzea; askotan txuri-beltzean den mundu hori gure koloretako begietatik pasa eta koloretako mundua eta etorkizuna opa nahian, gure herriari eta munduari, halako gaiak lantzen hastea: familiarena, etorkinena, maitasunaren adierazpen anitzena, ijitoena, ekologiararena, minbiziarena e.a. Ho-

rretan gabiltza. Aurrera begira... Azken urtea Pirritx gabe eman dugu, haurdun dagoelako, Aiora ere haurdun zegoen, berak izan ditu umeak jada, baina Pirritxek uste dut haurdunaldia behorrena bezalakoa izango duela, 12 hilekoa; umeak azaroan izango ditu, Pupu eta Lore. Horien heziketan arituko gara datorren proiektuan; haurren heziketa nola egin. Osasunaren gaia landu nahi dugu, baita naturarena, naturarekin orekan bizi beharko genukeelako, zientziarena baita kultur transmisioarena

ere; gai oso inportanteak dira guztion bizitzan.

—2006ko udan “Maite zaitut” kantak, aurretik “Riki-Riki”-k ere, arrakasta itzela izan zuen, ez bakarrik umeen artean! Nongura entzuten da oraindik orain.

—Ezustea izan zen, nola esperoko genuen bada! Ijitoen gaia ari ginen lantzen, eta hartzena, ekologiararena bide batez. Ijitoxo



bati eskainitako kanta zen, horregatik da rumba. Orokortuz, gurekin batera, saioetan-eta, oro har Euskal Herrian bizi diren lagun guztiei eskaini nahi genien maitasun adierazpen hori. Iruditzen zaigu Euskal Herrian aldatzen ere bagoazela, poliki. Maitasun asko izan dugu beti Euskal Herrian, baina agian batzuetan ez dugu transmititzen, kanporatzen, azaltzen... Herri gogorra izan garela-edo, neurri batean, agian heziketarik. Gure gizartean ere bizi izan dugu bizi duguna, urte oso ilunak, politika, erlijio eta beste kontuetan; orduan, gu ere sufritu eta sufritzen duen herria ere bagara. Gaurko egunak ere ez dira koloretakoak, baina horren bila goaz, ari gara... Nik uste eboluzioa ere egin dugula euskaldunok, adibide bezala jartzen ditut eskelak: lehen, *“el director espiritual”*, familia zerrenda luzea, funeralaren ordua, tokia eta *“sera en la intimad”* ziren; gaur, eskela asko poesiak dira, ederrak, gure maitasuna adierazten dugu modu askoz ohikoago, errazagoan. Gauzak aldatzen ari dira onera, euskaldunok ere gure sentimenduak azaltzen, adierazten, partekatzen ditugu; modu politean gero eta gehiago. “Maite zaitut” horren adibide da, jendea harrapatu zuena, denon bihotzak, hankak saltoka jartzen dituen kantua.

—Ekitaldietan gazte, guraso erdaldun, hainbat ideologia eta koloretakoak batzen dituzue. Baina, badira “gustuko” ez zaituztetenenak (lekuko: Bilboko eta Getxoko beto ahaleginak). Ostera, berriro hemen...

—Guk pertsonalki gure bizitza, gure konpromisoak ditugu; pertsonalak dira. Baina, horiek ere asko eman diote gure pailazo bizitzari. Euskara taldean ari ginelako hasi ginen pailazogintzan; militantziaz, euskartik. Hori da sekula utzi nahi ez duguna, herrikoitasun hori eta herri elkarteekin burutzen dugun elkarlana, nahiz eta bidean profesionalizatu garen. Profesionaltasuna ez da bateraezina elkarlanarekin eta herrikoitasunarekin. Pertsonalki izan ditugu eta baditugu gure inplikazioak; horrek, dudarik gabe, asko aberastu du gure pailazo lana ere. Nik uste, lehen aipatu duzu... arrakastaz hitz egi-

tea ez zaigu gustatzen... konexioaren puntu handi bat ere izan da agian. Gure ikuskizunek hitz egitea bizi ditugun errealitate ezberdinetaz, inplikatzeko balore horiekin eta apustu egitea horien alde, suposatzen du berdin pentsatzen ez duen jendea ere bada-goela. Familiaz ari bagara, familia eta maitasuna bizitzeko erduz, gaur egun Euskal Herriko Elizan, agintean, nor jartzen ari di-

“Gaur egungo egunak ere ez dira koloretakoak, baina horren bila goaz, ari gara...”

ren ikustea besterik ez dago... Politikagintzako hainbat jende ere ez du gustuko; homosexualitatea, bestea e.a. ... Gauza oso sinpleekin ere ez; euskararekin, Euskal Herria den ala ez, euskaraz bizi behar dugun ala ez... Kontzeptu horiek politiko, edo alderdikoiak, izan behar ez luketenak ere politikokiak dira, eta badago jendea Euskal Herrian pentsatzen duena Euskal Herria ez dugula euskaraz bizi behar eta gainera euskarak bigarren mailako hizkuntza izan behar duela. Hori aldarrikatzeak, eta horrela bizi garen heinean, talka egiten du hainbatekin... Baina, uste dugu, eskaintzen dugun mundua, Euskal Herrian euskaldun gehienok gure herriarentzako, askatasunean, eta munduarentzako, amesten eta nahi dugun koloretako mundu hori oso erakargarria dela; nahiz eta txuri-beltzez margotu nahi duten, batez

“Nahiz eta sufrimenduan bizi; ez Palestinan, Kurdistanen, Euskal Herrian, Katalunian, ez dute irriekin bukatuko!”

ere euskaldun sentitzen ez diren... handi-mandi politikari batzuek. Horregatik ere jende asko etortzen da gugana, eta konpartitzen ditu gure sentimenduak, proiektuak, ametsak eta bizimodua. Baina, ez da bakarrik pailazoen kontua, oro har Euskal Herrian bizi dugun gauza da talka hori. Pailazoak, abeslariak, idazleak e.a. hor gabil-

tza, betoak eta beste... Kultura “arma” inportantea da; sudurra jantzita, edo koloreekin, irriarekin, are eraginkorragoa batzuetan. Aire inozentea, edo polita dena, batzuentzat arriskutsu ere bihurtzen da.

—Pailazogintza, gurean, sasoiak dago.

—Zorionekoak! Txirri, Mirri eta Txiribiton hasi ziren, euskaraz. Asko gaude gaur egun, bakoitzak bere ekarpena egiten du, estilo eta

lan egiteko modu desberdinak; denak pozgarriak. Beste herri batzuekin alderatuta, sudur gorriak nabarmen egiten du diz-diz gurean; polita da! Aukera hori edukitzea benetan luxua da. Gorabeherekin, gure sufrimenduekin, baina, beti kantatu eta irri egin dugun herria gara. Diogun bezala: *“bizitza kantu bat da, guretzat hain justu; neska-mutilok hori dago gure esku! Kantari eskolara! Kantari jolastu! Kantari lotaratu! Kantari amestu! Kantatzen ez duenak zorionik ez du!”*. Guk kantatzen dugu eta zoriona badugu!

—Zuen ametsak “urrunekoakaz” ere alkar banatzen dituzue: Kuban izan zineten, Palestinan orain. Ume palestinarren irriak...

—Piraten kanta egin genuen: *“Handi-mandiek ez gaituzte maite, libre garela, eta errebelde! Inoren esklabu, inoren menpeko bizi*

nahi ez dugulako!...” Donostiako Piratei eskaini genien, baina oro har Euskal Herriko pirata guztiei eskainia da. Munduan ere handi-mandi asko dago! Kolore ezberdinetakoak! Berlingo harresia suntsitu zuten bere garaian, ematen zuen bukatu zirela harresiak; gaur egun inoiz baino harresi gehiago daukagu mundu kapitalista honetan! Za-

palkuntzan eta egoismoan oinarrituta dagoen munduan. Badira estatu batzuk, oso handiak direnak, bere menpe hartzen dituztenak herri txikiak; interes, botere, gose handia dago, ekonomikoa, politikoa... Guk puzzlea bezalako mundu bat nahi dugu, pieza asko-askotakoa, pieza ahalik txikienetakoa eta koloretsuenak; pieza guztien artean, modu aske eta berdintasunean parteka-

“Hezkuntzak denon esku egon behar du, denon artean egin behar dugu, lege hertsien gaineratik...”

tutakoa, herri txiki askoz osaturiko mundua! Horregatik Kuba, bere garaian Nikaragua, Sahara, aurten Palestina; eta horregatik etorriko dira beste asko. “Maite zaitut” abestia, adibidez, katalanez egin genuen, gero galegoz, aurten, hurrengo diskorako arabieraz. Palestinako bidaia aprobetxatu dugu, Fermin Muguruzaren bidez, musikari talde batekin harremana egiteko; letra egina dago arabieraz, palestinarrek eskainiko digute hurrengo “Maite zaitut”! Abesti hori, datozen urteetan, beste herri, kultura eta hizkuntzekiko harreman tresna eta amets partekatua bihurtzea nahi dugu. Nazioarteko puzzleari gure ekarpena eman nahiko genioke, eman eta jaso! Palestina herri okupatua, zapaldua,

“ignoratua”, menpeko bihurtu nahi dutena... bertan dago, bizi, irauten, etorkizunari begira! Nahiz eta sufrimenduan bizi, ez dute ez Palestinan, ez Kurdistanen, ez Euskal Herrian, ez Katalunian irriarekin bukatuko! Irri egitea eta amestea beti izango da gurekin daramagun, eramango dugun zerbait; horrekin behintzat, ez dute bukatuko! Irriak beti dira ongi etorriak, partekatzeoak; han

eman egin dugu, baina asko jaso! Toki guztietan dira umeak eskuzabal... Arabieraz aritu zen Porrotx, e! Frediren (Paia) laguntza ere izan nuen, helduekiko itzultze lanetan. Arlo ia guztietakoek osatu dugu taldea, giro bikaina gure artean, oso ondo pasa dugu! —Sarri ahazten zaigu Hezkuntza eskolatik kanpo ere jorratu behar dela.

—Hezkuntzak denon esku behar du. Herri guztiaren ardurak da bere Hezkuntza Sistema, Curriculum... egokia, ederra edukitzea, bere nortasunarekin. Mundua koloretakoa amesten dugu, eta euskaldunok munduari gure kolorea eman behar diogu: euskararena, gure nortasunarena, auzolanarena, gure baloreena. Ez dugu Hezkuntza ulertzen es-

koletako paretan barruan, ezta etxe barruan ere; eskolak kalera atera behar du, herrira, herriari ekarpena egin, herriak eskolari, etxeak herriari, herriak etxeari... Geure baloreak emanez; legeen, lege hertsien gaineratik, alderdikierien, politikarien arauen gaineratik! Ikusten ari gara zer gertatzen ari den: kanpoan erabakitzen dutela, hein handi batean, zer landu behar dugun Euskal Herrian, zer irakatsi behar diegun gure umei... Gure usuez bertatik egin behar dugu, oso-oso bertatik! Geuk! Ez modu “konpartimentatua”, konpartitua baino; denok, bakoitzak hartu behar dugu erantzukizuna, busti egin behar dugu igerilekuan! Modu alaian, disfrutatuz. Tarteka majisteritza eskoletara joan naiz gure esperientzia kontatzera, esaten diet: zein polita den esku artean duguna! Altxorra, esku artean: umeak. Baina, altxorra geuk eduki behar dugu. Batzuetan galdetzen digute umeak berdinak ote diren lehen eta orain; erantzungo nuke ea berdinak ote garen, lehengo eta oraingo gurasoak... Zer nahi dugu seme-alabentzat? Guretzat nahi duguna; zer egiten dugu guk egunerokotasunean, hori ari gatzazkie seme-alabei eskaintzen. Ez dugu pentsatu behar gure seme-alabak izango direla liburuetan edo eskolan ordu batzuetan esango zaiena, izango dira denon artean ematen dieguna. Hori denon esku dago. ○

Nagusitzea eta euskal Disney-a

—Nagusitan non ikusten du Joxe Mari Agirretxek bere burua?

—Joxemari asko eman zion Porrotxi bere garaian, baina aurrera ere egin du, eta Porrotxek ere asko eman dio Joxemari. Joxemari-Porrotx, Porrotx-Joxemari, bata eta bestea zeintzuk diren bereizte... ez da bakarrik pintura, zapata, edo sudur kontua, barruan daramadan zerbait da; batzuetan ez naiz pailazo sudur gorria janzen dudalako, beste batzuetan ez dut hori behar pailazo izateko! Horregatik amesten dut etorkizuna Porrotxekin batera; eta zahartzen naizenean ere, bagoazela, zahar-etxe zahar-etxe irudikatzen dut neure burua, gure irria, ilu-

sioak eta ametsak partekatuz, haurrak alde batera utzi gabe, inola ere!

—Peter Pan sindromea diagnostikatu al dizute noiz edo noiz?

—Peter Pan maitagarria da, baina guk euskal Disney-a nahi dugu! Izan gara Palestinan, izan gara munduko hainbat tokitan, eta Disney panpinak ikusi ditugu guztietan. Gure lanean, datozen urteetan, aurten abiatuko dugu BERRIArekin elkarlanean proiektua (lagunen kluba, hilabetekaria), bilatzen eta bilatuko duguna da, pailazoetatik at ere, euskaldunok gure baloreak eta gure nortasuna lantzeko gure pertsonaiak, gure erreferenteak izateko mundua lantzea; gure

herrian lehendabizi, gure herritik mundura zabaltzeko, gero, konpartitzeko. Peter Pan maite dugu, baina maite ditugu: Tiribatxo pediatra, Pupu eta Loreekin batera osasunaren gaia landuko duena; Largabista basozaina, Euskal Herriko naturaren sekretuak erakutsiko dizkiguna; MariKalanbre, zientziaren ezagutza emango digun neskatxa bihurria; Martin Bertso, kultur transmisioa lantzen lagunduko diguna; maite dugu Ane pirata, boluntariotza, altruismoa zabalduko duena Patakon pirataekin batera... Guretik eman behar dugu, kanpotik dauden gauza politetatik jasoz eta ikasiz, nola ez! Gora Peter Pan! Baina, GORA Euskal Herria!



Erretratuak

Orain bost urte zaletu da Ander Ormaetxea algortarra argazkiak egitera. Egin duen azken bidaiakoak ekarri dizkigu fotografia atal honetara, Perukoak, abuztukoak. Cuzco mendi aldekoak dira batzuk, bertan dago Machu Pichu; Iquitosekoak beste batzuk, oihan ingurukoak; eta haurrak, Flor de Pungan erretratatu zituen. Bere argazki gehiago topa ditzakezu www.flickr.com/misfots gunean.

Argazkiak: **Ander Ormaetxea**









BETIKO

IKASTOLA

**GURE GAURKO
ETA BETIKO
IKASTOLA**

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingeleza 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Leloko ikastolen Elkartearen ikastola bakarra.



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GARRK!



**GIZONENTZAKO
MODA**

Telleixe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Film Sozialak Bilbon

Zine Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia irailaren 28tik urriaren 5era egingo da



Ekitaldiaren irudia. Informazio gehiago: www.kcd-ongd.org/euskera-1/zinema-ikusezina

Bigarren ekitaldia beteko du aurten Bilboko Zine Ikusezinaren "Filme Sozialak" Nazioarteko Jaialdiak. Hasiera ekitaldia irailaren 28an egingo dute eta amaierakoa urriaren 5ean; bata zein bestea Bilboko Alondegian. Aurtengo jaialdirako 200dik gora film jaso dituzte 23 herrialdeetatik heldutakoak. Jasotako guztietatik 65 lan aukeratu eta eskainiko dituzte, 45 film laburrak dira eta 20 film luzeak; eta %29 emakumezkoek eginak dira. Antolatzaileek diotenez, "Filme Sozialak" jaialdia larregitan ikusezina den zineagaz hitzordua da; giza eskubideak, genero berdintasuna, immigrazioa, ekologia, garapen iraunkorra eta abarregaz konprometitu den gizarte gaiak jorratzen dituen zineagaz zita.

Filmak hainbat lekutan eta egunetan emango dituzte, besteak beste: Bilboko Alde Zaharreko EHUren Esperientzia Gelen egoitzan urriaren 1ean, Capitol Zinemetan irailaren 29tik urriaren 4ra (17:00, 19:45 eta 22:30eko saioetan) eguneko film desberdinak eskainiko

dituzte (sarrera: 3 euro), eta azkenik, Erandioko IEFPS Tartangan ere hainbat lan ikusteko aukera egongo da: hilaren 27an *Libra* (4 min.; Espainia), *Violeta* (7 min.; Kolonbia), *El orden de las cosas* (20 min.; Espainia), eta *Diarios de otoño* (30 min.; Italia); irailaren 28an *Lost* (4 min.; Espainia/Somalia), *On the line* (12 min.; Espainia/AEB, Mexiko); *Rezagos* (24

«Erandioko Tartangan ere hainbat film ikusteko aukera egongo da; Capitol Zinemetan ere bai»

min.; Txile) eta *Heroes no hacen falta alas para volar* (26 min.; Espainia); hilaren 29an: *Capicua* (3 min.; Espainia) eta *Miradas desveladas* (52 min.; Espainia); hilaren 30ean: *Los prejuicios de los prejuicios* (3 min.; Espainia), *Cuando corres* (5 min.; Espainia/Maroko), *La autoridad* (10 min.; Espainia) eta *Vidas reinventadas* (40 min.; Espainia/Argentina); amaitzeko, urriaren 1ean *El club de los sin techo* (55 min.; Espainia/Brasil). ○

Berri gazi-gozaok BTX-en

Urrian kaleratuko du talde nafarrak **Denak ez du balio: singles 1997-2007** bilduma



Gorka Urbizu. Informazio gehiago: www.berritxarrak.net

Berri Txarrak taldearen zaleek albiste gazi-gozaok jaso dituzte azken hileotan. Alde batetik, sorrerako taldetik lotzen ziren bi lagunetatik batek, Aitor Goikotxea batera jotzaileak, taldea uzteko erabakia jakinarazi zuen abuztuan. "Inoiz ez dut urte hartan bizitakoa, sentitutakoa ahaztuko, ezta 1994. urteko uda hartan hau guztia hasteko genituen arrazoiak ere. Musika, bizitzan arnas hartzeko behar dudana gauza da niretzat (...), goiz edo berandu bidean elkar topatuko dugu", azaldu zuen. Dagoeneko, taldeak badauka bidea ibiltzen segitzeko ordezko batera jotzaileak; DUT eta Kuraia

taldeetan jardundako Galder Izagirre.

Bestalde, denak ez dira txarrak, eta oinen artean dago urrian urteotako 6 diskoak laburbilduko dituen bilduma plazaratuko duela Lekunberriko taldeak. GOR diskoetxearen asmoa izan da, "Berri Txarrakek gurean igaro dituen 10 urteotako lagin duina izatea nahi dugu, taldearen oniritziarekin beti ere. Taldeak berak zaleen inplikazioa ezinbestekotzat jo du...". Hala, *Denak ez du Balio: singles 1997-2007* lanerako 15 kantu zaleen arteko aukeraketatik hautatuak izan dira, eta beste bost bat deskatalogatuta edo aurkitzeko gaitz samar daudenak. ○

diskoak

Aurtengo Gorakada 2.0
Hainbaten artean
GOR



Bertsio digitalean bakarrik editatu du GOR argitaletxeak *Aurtengo gorakada 2.0* bilduma. Bere webgunean eta zenbait denda digitaletan (Itunes, Spotify, e.a.) eskura daiteke. Bizardunak, Lauroba, Memo, Vengeance, Electric Riders, Mantis, Salida Nula, The Sparteens eta 121 d.b. taldeen kantuak bildu ditu aurten.

Grandes exitos del ayer
The Sparteens
GOR



Azken 30 urteotan hainbat taldek interpretatutako abestiak jotzen ditu (talde grunge, hip hopero, heavy metal edo punk) The Sparteens taldeak, baina *twist* estiloan. Hilabete batzuetako etenaren ostean taula gainera itzuli dira eta disko batean grabatu dituzte abesti ezagunak, Sllipepey Twist Orkestrak lagunduta.

It's fiesta time!
Los Reyes del K.O.
Gaztelupeko Hotsak



Marcos Coll aho-soinu jotzaile eta Adrian Costa ahots eta gitarra jotzaile galizarren seigarren lana da *It's Fiesta Time*. Blues jatorrizkoenetik modernoeneraino egin dute funk, soul, hip-hop eta musika latinoak kutsaturik. Charlie Musselwhite, Aron Burton eta beste musikari batzuek batera bizitako esperientziaren emaitza da.

kontzertuak > Urria Artium-en

Art+Sound hileroko kontzertu zikloari barriro eutsiko dio Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoak (Artium). Ekimenak ohikoak ez diren ibilbide komertzialetatik urrun dabilzan musika taldeak eta estiloak entzuteko aukera eskaintzen du Gasteizen. Hurrengo hitzordua (gainontzekoak zehaztu barik daude oraindino) dagoeneko jakinarazi dute: urriaren 1ean Vinila von Bismark (Kracovia taldeko abeslari ohia) abeslari, DJ, antzezle deigarriak oraingo taldeagaz, The LuckyDados madrildarrak batera eskainiko du kontzertua. Taldeak eta abeslariak urte hasieran batu zituzten euren bideak, horren fruitu da apirilaren plazaratutako *The Secret Carnival* diskoa.

Informazio gehiago:
www.artium.org

Audience > Amerikanuentzat

Nacho Reig eta Gorka Bilbaok egin duten *Amerikanuak* dokumentalerako musika Gernikako eta Busturialdeko Audience taldeak egingo du. Elkon (Nevada, AEB) bizi diren euskaldun etorkinen bizimoduaren gaineko dokumentala da *Amerikanuak* eta ETBk igorriko du laster. Orain dela 10 urte jaiotako Audience taldea Hannot Mintegiak (ahotsa, gitarra, tronpeta), Gaizka Insunzak (ahotsa, gitarra eta pianoa), Ager Insunzak (ahotsa, biolina, gitarra eta pianoa), Andoni Lauzirikak (baxua) eta Mikel Sa-garnak (bateria, perkusioa) osatzen dute.

Informazio gehiago:
www.weareaudience.com



Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkeztzen baduzu
%50eko deskontua izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Vilamonta plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebka 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Umorea eta literatura

Bilboko Barrea Umorezko Literaturaren Nazioarteko jardunaldiak **hilaren 22tik 26ra**

Behintzat deigarritzat jo liteke orain dela gutxi baltzez jantziarazitako hiriburuan irailaren 22tik 26ra antolatuko den ekimena: Umorezko Literaturaren eta Umore Grafikoaren Nazioarteko Astea. Juan Bas idazle bilbotarraren ekimenez jaio da ekitaldia eta Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala, BBK, El Correo egunkaria eta Aranzazu Hoteles ditu babesle. Europa mailako umorezko literaturaren gaineko lehenengo jaialdia ei denak helburu nagusi bi ditu Bas zuzendariaren arabera: bata, herritar andana erakartzen dituen literatura eta kazetaritza genero horren kalitatea aldarrikatzea, eta bestea, nazioarteko literatu-

«Forges marrazkilariaren Los Forrenta años erakusketa Areatzan»

ra ekitaldi bat izateko Bilbok duen gabezia betetzeko nahia. Antolatzaileen esanetan, generoko idazle entzutetsuak batuko ditu ekimenak, besteak beste: Tom Sharpe idazle britaniarra (berak jasoko du ekimenerako propio sortutako BBK saria), Antonio Fraguas *Forges* marrazkilari madrildarra (omenaldia egingo diote eta *Los Forrenta años* bere erakusketa primizian ikusi ahaliko da -diktadura frankistaren 40



Informazio gehiago: www.larisadebilbao.com

urteei egindako marrazki satiriko-politiko osatua-), Michel Houellebecq, Martin Amis, Fernando Marias, R. Reig, Fernando Iwasaki eta Kirmen Uribe. Azken euskal idazle horrez gainera, Iban Zalduak eta Fernando Aramburuk, besteak beste, parte hartu dute ekimenak kaleratuko duen umorezko literatur kontaketa laburren liburuxkan. Mahai-inguruak, hitzaldiak, idazleakaz topaketak, ipuin-kontalariak, erakusketak, azoka e.a. prestatu dituzte, lau gunetan banatuko direnak: Arte Eder Museoa, BBK Areatoa, Euskalduna Jauregia eta Areatza.

Halere, barre artean euskara gutxi. ○

liburuak



Fahrenheit 451
Ray Bradbury
Txalaparta

Playboy aldizkari ezagunearn atalka argitaratutakoaren bilduma euskaraz kaleratu du oraingoan Txalaparta. Liburuak erretzea ogibide duen suhiltzailearen istorioa kontatuko digur; irakurtzea debekatuta dago Montagen herrian, irakurtzeak pentsatzea baitakar.



Nor bere bidean
Joan Mari Irigoien
Elkar

Elkarri bidalitako eskutitzetan euren kezka eta buruhaustek erakutsiko dizkigute Damaso eta Gabino anaiek. Lehenengo arrazional eta eszeptiko agertzen da munduaren aurrean; bigarrena oster, sentikor eta ameslaria da eta pasioz beteta du barrena.

[kirola]

Garazi Bilbao > arraunlaria

“Amestu? Ez dakit nik... Badakizu: entrenatzen jarraitu eta ahalik eta urrunen heltzea”



Getxoko Udalak banatzen dituen Sasoi-Sasoian sariketan aurrean Kirolari onena izendatu zuten

Herrira, etxera, heldu barritan egin genuen berba Garazi Bilbao (Algorta, 1992) arraunlariagaz. Singapurren abuztuaren abuztuaren Joko Olinpikoetatik bueltan han bizitakoez, egitekoez eta amestsez jardun zuen 17 urteko algortarrak.

Hainbat kiroletan ahalegin ostean, bat ere gustuko ez, eta 14 urteagaz, orain 3 urte eskas, hasi zen arraunean herriko Algorta Arraun Taldean. Azkeneko urte biak Asturias aldean emon ditu, hango Goi Mailako Kirolarientzako Errendimendu Zentroan arraunlari legez bere burua prestatzen. Kirol honetan hasi eta gutxira konturatu zen “entrenatzeko aukerak, ordutegiak e.a. egokiagoak zirela han, askoz hobea zela, aukera ona zela... eta joatea erabaki nuen”. Orain ondo moldatzen dela dio, baina “lehenengo egunak oso gogorak izan ziren, orain baino askoz gazteagoa nintzelako; baina orain oso ondo konpontzen naiz, gustura nabil”.

Gazteen I-go Joko Olinpikoetan parte hartzeko aukera izan du, eta adierazi duenez, “Oso ondo; kristoren... esperientzia

ikaragarria izan da! Leku guztietako jendea, eta kirol mota guztietakoak izan gara han. Nire kasuan, modalitate bitan lehiatzeko aukera zegoen; bat skiff-a, pertsona batekoa, eta bestea bi pertsonakoa. Nik skiff-ean bakarrik parte hartu dut”. Eta sailkapen nagusian 10. postua lortu zuen. Azaldu duenez: “22 neskek parte hartu genuen, 1.000 metroko tartea bete behar ge-

«(Singapurrekoa) Kristoren... esperientzia ikaragarria izan da!»

nuen, ohiko distantzia 2.000 m-koa da, baina Olinpiaden lehenengo aldia zenez, arau bereziak jarri dituzte”. Lortutako emaitzagaz pozik lotu da, “han egon den maila baino handiagorik ez dago inon, eta lortutakoak entrenatzen jarraitzeko gogo handiagoa emon dit; postu hori hobetzeko”. Aurrera begira ametsetan pentsatzen hasiz gero, zer bururatzen zaion galdetuta, bere erantzuna hau: “amestu? Ez dakit nik... badakizu: entrenatzen jarraitu, eta ahalik eta urrunen heltzea!”. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kizol moda

350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacorfris, s.l.

- MARKE EGATIAK
- 24 OREZTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETIKO GARANTIA
- 35 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- BYEBE DAAN

Tf. 94 430 52 00 Kasupe 18 - ALGORTA

Itxaso Gurrea > *coach*

“Kontua da beharrezko aldaketak egitea bizitzan, hobetzeko eta zoriontsu izateko”

Coaching metodoa modan dago azken urteotan, eta antza, lortzen dituen emaitza onei esker. **Itxaso Gurrea** sopoloztarra **Bide Ananda** elkarteko kide da eta ikastaro asko gidatzen du, horietako azkena izan da irailaren 18an eta 19an, Bilbon. **Coaching-a** zer den azaldu digu.

—*Motibazioa eta arrakasta* ikastaroa egin duzue.

—*Coaching* ikastaroa izan da, PNL Programazio Neuro-Linguistikoa kodeaz. Teoriaz hitz egin dugu PNL kodea aplikatuz, eta benetako adibide bat ezagutu dugu, teoria praktikara nola erosten den ikusteko. Josef Ajram eliteko kirolaria izan da adibidea. Arrakasta lortzeko beharrezko aldaketak egiteko tresnak eskaintzen dizkigu *coaching* metodoak.

—**Hori da coaching?**

—Entrenamendua da *coaching*, eta entrenatzaileak *coach* garenok. Hainbat *coaching* mota dago, guk erabiltzen dugu PNL kode barria aplikatzen duena; John Grinderren ikaslea naiz, berak sortu zuten metodoa. Kode barriak adimenaren inkontzientean eragiten du, bertan eragiten dira-eta benetako aldaketak. Kode barria da garun-teknologia bizitzan artez aplikatzea. Garunean funtzionatzen duten zirkuituak bilatzen ditugu: gizakiari atxikita daude eta umetatik ikasten dugu pertsona nagusiak imitatuz; modelatzea esaten diogu. Horrela, arrakasta lortu duten pertsonak behatzen ditugu, gero imitatu ahal izateko.

—**Zein helburugaz?**

—Helburua da beharrezko aldaketak egitea gure bizitzan, hobetzeko eta



Bide Ananda hamar urte daroa *coaching* ikastaroak eskaintzen

zoriontsu izateko. Bizitzan eta jendartean aldaketak gertatzen dira, eta arazoak sortzen zaizkigu aldaketei moldatzen ez gatzazkienean. Bizitzak etapak ditu eta erronkak sortzen zaizkigu. Malguak ez bagara eta egoerak eskatu moduan jarduten ez badugu, arazoak sortzen zaizkigu, ez baikara garatzen aldaketakaz batera; erronka arazo bihurtzen da. PNL

amaitzea, lehiatzea baino. Arrakasta lortu du, askotan, aipatu teknika horiek aplikatuz: modelatzea, sormen-adimena, lortu gura dituen helburuei begirako barne elkarrizketa egokia, e.a. Plan bat diseinatzen du, jarrera egokia dauka eta horrela lortzen du helburua. Azken batean, hori egiten dugu *coaching* metodoan. —**Horren emaitza onak lortzen dira?**

“Esperientzia da gure irakaslea, nire *coaching* maisuak dioenez”

kodeak hitz horiek aldatzen ditu, arazoa erronka bihurtzen du.

—**Adibide praktikoak jartzen dituzue, oraingoan Josef Aram etorri da, zergatik bera?**

—*Ultraman* da, eliteko kirolaria; *ironman* gainditzen duen froga da. Josefen bizitza filosofiaren arabera, garrantzitsuagoa da iraunkortasuna eta frogak

—Ikasitakoa praktikan aplikatuz gero bai, hori da garrantzitsuena. Horregatik egiten ditugu proba praktikoak, bizitzan aplikatzean izango duen jarrera eta biziko dituen sentimenduak proba ditzake-elako ikasleak. Teoria praktikara ez baduzu erosten, ez duzu emaitzarik lortuko. Nire maisuak dioenez, “*esperientzia da gure irakaslea*”. ○

Fredi Paia

Trugoiaren sasoi

Eguzki egutegiak diñosku uda bagilaren amaieran hasten dala, eguzki solstizio edo eguzki ganak irauten dauan lau urren, lau egunetako ziklo edo larunbataren erdian hain zuzen bere. Baina Frazer edo Caro Baroja moduko ikerlariek argitu izan deuskuen lez, emoten dau Europako kultura zaharrean iretargi edo *irergi* egutegiagaz lotuta dagoan beste uda bat dagoala. Gure eskualdean gomuta daukienez diñoen moduan: “Santa Kurtzeta Santa Kurtzera, siesta egiteko sasoi, kanpak dobla, trugoi solta eta amarra itxen dan sasoi”.

Ez da gauza barria erlijino katolikoak suntsitu ezin izan dituan jaiei mozorroa edo, gurean esaten dan moduan *muserangea* ipini izan deusiela santuen bidez. Erromako enperadore Konstantino I.a Handia eta bere ama Santa Elenari zor deusie maiatzaren 3ak eta irailaren 14ak Santa Kurtze izena. Baina muserangearen azpiari adi para ezker gure kulturaren sustraietan aurkitzen dan Maiatzaren zikloagaz egingo dogu topo.

Beste egun baten egingo dogu berba gure jai egutegia ardaztuten daben 40 eguneko iretargi zikloez. Egubarritik hasita hirugarren zikloari jagoko maiatz hasikerea, oraindino be loraila edo Andra Mariaren (ez daigun nahastu Ama Birjinagaz) hila esaten jakona. Maiatzak, antxinatik europar kulturaren, Naturaren bizitza eztanda sinbolizetan dau. Maitasun eta emonkortasunagaz lotuta dago gure subkontzientean. Zeozergatik da ezkontzen hilabetea, ekinza horrek maitasun eta emonkortasunagaz zein lotura daukan frogatu barik egon arren oraindino.

Sasoi honetan gizakiak eskerrak emoten izan deusoz ugalkortasun hori posible egiten daben indarrei, eta horregaz batera, ugalkortasun horren fruituak arriskuan ipinten dabezan indarren kon-



Sopelako Fraidemendin, *Munarri*

tra egin dau erritu eta konjuruen bidez.

Gurean, manikeoak ez diran erlijino zahar guztietan legez, berbera da ugalkortasunaren miraria eta fruitua hausiteko arriskua dakarren indarra. Otsagabiako dantzariaren moduan, aurpegi biko izaki bakarra. Landara erretzen dauan natura berak suntsitzen dau eta kaskagaragarra, hedoi edo trugonadaren bidez. Jose Miguel Barandiaranek argitu euskun moduan, euskaldunok dana sortu eta suntsitzen dauan indar horrer Mari, Andra edo Dama deituten izan deutsegu.

Natura eta bere indarren pertsonifikazio horrek sinbolo ezbardinak daukaz. Euren artean bat da gure eskualdeko zaharrek erabiltzen dabena, *Trugoi*. Euskal Herri osoan maiatzaren hiruan urtetan dau Marik, hedoi, herensuge edo sierpe bihurtuta bere kobazulotik: Aketegin, Aloñan, Murumendin, Jatan... Horrer dinotsie gure zaharrek trugoi solta itxen da. Irailaren 14an barriro bueltetan da bere lurrazpiko egoitzara, *trugoi* amarra.

Sasoi horretan jasoten ditu gizakiak luraren fruituak eta uztak. Garai honetan dira arriskutsuen ekatz edo trugonadak. Eta eurengandik babesteko leku altuetan eragitate aldareetara *iyeten* ziran gure arbasoak trugoiaren aurkako konjurua egitera: *Inguru minguru intxaur hostoa liburu...* hasten ziran gipuzkoar goierriko konjurua. Gurean trugoiaren aurkako erritu eta konjurua egiteko aldare bi lotzen dira. Bata Sopelako Fraidemendin eta bestea Barrikako Ganen. *Munarri* esaten jako Sopelakoari eta *Harri-uridin* esaten deusie testu zaharrek Barrikakoari. Konjuruen erritu honeri munarrietara jo deituten eutsien antxina bai Jataben eta baita Gipuzkoa nahi Nafarroako hainbat herritan. Erritua bera herriaren mugak adierazoten dabezan mugarrietan egiten zan eta. Gure eskualdean lokalizatuta dagozan aldare biak alkar ikusteko moduan ipinita dagoz, eta bietatik ikusten da erritu beragaz lotuta dagoan Jatako tontorrik txikerrera, Santa Kurtze. Kasualidadea ete? ○

[badaukazu non aukeratu]

Asko dira gure herrietan dauden tabernak eta jatetxeak. Gida honen bitartez hauen aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu aniztasuna alde batera utzi barik. Animatu, badaukazu non aukeratu eta.

[zure iragarkia hemen]	[zure iragarkia hemen]	[zure iragarkia hemen]
[zure iragarkia hemen]	[zure iragarkia hemen]	[zure iragarkia hemen]
[zure iragarkia hemen]	Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini geugaz harremanetan: 94 491 13 37 publiuk@aldizkaria.biz	[zure iragarkia hemen]
[zure iragarkia hemen]	[zure iragarkia hemen]	[zure iragarkia hemen]
[zure iragarkia hemen]	[zure iragarkia hemen]	[zure iragarkia hemen]

[gaurko aukera]

Portu Zaharra

Ilunabarra sentitzeko, non hobeto?



Portu Zaharra tabernako lagunak

Aski ezaguna da Uribe Kostako txoko ederrenetako batean dagoen Portu Zaharra taberna. Zuotako askok garagardo freskoa edango zenuten, eskaileretan eserita itsasoari begira, lagunartean kontu-kontari. Andeka Goirigolzarri, familia-koen laguntzagaz, orain zazpi urte hasi zen taberna gobernatzen. Lekuaren xarmak kanpotarren artean duen arrakastaren jabe badira ere, herrikoentzat behar egiten dutela argi daukate Portu Zaharreko lantaldekoek: “Ez dugu turismoan pentsatutako eskaintza diseinatu; ohiturak mantendu gura ditugu, ostalaritza barraren tendentziak kontuan hartuz”.

Jateko, pintxo aukera zabala eta originala daukate. Garaiari, urtaroari eta eskariari egokitzen saiatzen dira: “Betiko pintxoak mantentzen ditugu, tortillak adibidez; besteak urtaroaren arabera alda-

tzen ditugu”. Arrakastatsuenen artean, arto edo gari opilez egindako zakutxoak: “Hala ere, duda barik, gildak dira gehien eskatzen direnak; lau edo bost ezberdin egiten ditugu eta zaila da tragoa eskatzea horietako bat hartu barik”.

Edaria eta jatekoa inoiz falta ez diren osagaiak badira ere, giroa da itsas-ertzeko txokoaren sekretua: “Getxoko lekurik xarmangarrienetakoan gaude; gainera musika, giroa eta tratua ahalik eta onena izan dadin saiatzen gara. Jende gaztea gara eta tabernari dinamikotasuna ematen diogu”. Herrikoak, nagusiak zein gazteak, batzen dira: “Hori garrantzitsua da guretzat; polita da herriko belaunaldi ezberdinak alkarregaz ikustea”. Ilunabarra sentitzeko, non hobeto? ○

Portu Zaharra 35, ALGORTA
Tf. 94 460 20 33

ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92

Artaza Etxea Erazkino, Gobeia eraklearen ondoan • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI

ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiatzpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarrri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

GOZOLABEA

GALDARETXE

- Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
- Telletxe 13, ALGORTA Tf. 94 491 51 44
- Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 52 58

GURE DEIA JASOKO DUZU

hobeto ezagutu gura zaitugulako

Noiztik jasotzen duzu UK?
Nork irakurtzen du etxean?
Zein atal maite duzu gehien?
Zer aldatuko zenuke?
...

ESKERRIK ASKO ZURE ARRETAGATIK

uk
UK-ko lantaldea

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Auziluzo z.p. • T.F.A Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangoberri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA **HARTU TXANDA**

GOIZEAN
"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"
Prentsa - Fruita lehorak - Alkizariak - Licoberriak
Orduña Mendatea 1 Tellebxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 480 02 88
GETXO ALGORTA

Solaguren Txinatarra
TXINAKO BENETAKO ZAPOREAK
QI SUKALDARIA



Astelehenetik Zapatura
20:00-23:00
BERTAN JASO eta
ETXERA EROATEKO ZERBITZUA
944 306 177
Bilbao-Plentzia errep. 18.km. GETXO (Gasoldegia ondoan)

[horoskopoa]

<p>URA ◆ (Abenduak 21 urtarrilak 19) Zer, oporrak buruan oraindino? Guztioi gertatzen zaigu, baina lanean ganoraz hasteko unea da. Lasai egon, oraindik lotzen da eta hondartzarako egunik.</p>	<p>OTSOA ◆ (Urtarrilak 20 otsailak 18) Uda amaituta zegoela uste zenuen, baina ezusteko handia hartuko duzu egunotan. Argi ibili, auzoetako jaiak ere leku oso aproposa izan daitezke eta jende barria ezagutzeko.</p>	<p>ADARRA ◆ (Otsailak 19 martxoak 20) Zuk irailerako utzi zenituen oporrak, zorionekoa zu! Lagun guztiak beharrez, guztien inbidia zara. Balia itzazu ondo azken egunak, laster dator eta udagoiena...</p>
<p>AITZURRA ◆ (Martxoak 21 apirilak 19) Eskolara itzuli, baina oraindino ohitu barik zabilta, eta dagoeneko azterketak ipini dizkizute. Egia da, ez da bidezkoa, baina lasai, laster iritsiko da zubiren bat.</p>	<p>HOSTOA ◆ (Apirilak 20 maiatzak 19) Amamari bisitan joango zatzazkio, baina parrandan dabilela esango dizu auzokideren batek, horrek bai martxa! Izan ere, urte asko eta sasoi ona ez dira kontrajarriak.</p>	<p>EGUZKIA ◆ (Maiatzak 20 ekainak 18) Zure une txarra garaituko duzu, baikortasunez beteta. Aldaketa garrantzitsuak gertatzen ari dira zure bizitzan eta izan ziur galdutakoaren bikoitza berreskuratuko duzula.</p>
<p>GARIA ◆ (Ekainak 19 uztailak 18) Beldur barik berba egiteko gustuko zenuke, baina urduriegi zaude gauzak ondo azaltzeko. Zaindu sentimendu uholde hori, txorakeriak egitera eroan zaitzake eta.</p>	<p>LASTOA ◆ (Uztailak 19 abuztuak 17) Bidaiakaz eta lanagaz lotutako gauzak garrantzia hartuko dute, presta zaitetz hara eta hona ibiltzeari ekiteko. Baina kontuz! Oinak lurlean eta burua argi mantendu beharko zenituzke.</p>	<p>IRATZEA ◆ (Abuztuak 18 irailak 16) Etxean hobekuntzak egiteko unea da, etxeko dekorazioa eta zabalkuntzarako erabil ditzakezu datozen egunok, edo zergatik ez? Etxez aldatzeko garai egokia izan liteke.</p>
<p>META ◆ (Irailak 17 urriak 16) Udan agortu dituzu etxeko liburuak, danak irakurri dituzu. Liburutegira joan beharko zenuke, han badago zer aukeratu, merke baino merkeago topatuko duzu gainera.</p>	<p>HAZIA ◆ (Urriak 17 azaroak 15) Lagunagaz une goxoak bizitzeko irrikan, ez duzue lasai egoteko tarterrik aurkitzen? Telefonoa etxean utzi, har egizue kanpin-denda eta desagertu asteburu batez, inori ezer esan barik.</p>	<p>NEGUA ◆ (Azaroak 16 abenduak 20) Goizegi hasi zara jertse lodiak eta berokiak ateratzen. Dagoeneko urte akabuko oporralditoxa ailegatzeko desiratzen ala? Oraindino falta da eta hobe duzu lasai hartzea, antsiatetan itoko zara bestela.</p>

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
Kalea/zenb..... Herria.....
e-mail.....
Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37



HITZ GURUTZATUAK

EZKER ESKUIN:


- (1) Ezpatarien arma.
 (2) Arrain mota.
 (3) Armiarmaren familiako intsektu bizkarroia.
 (4) Behe-espainaren azpian dagoen aurpegi zati.
 (5) Bizkaieraz, garoa, iratzea. Nork pluralean.
 (6) Lehenengo letra. Itsas zab-lean arrainak atzemateko tokia.



	1	2	3	4	5	6
1						
2						
3						
4						
5				■		
6	■					

GOITIK BEHERA:

- (1) Zauria.
 (2) Behi gazte.
 (3) Galtzak.
 (4) Diosal hitza, agur. Bokala.
 (5) Inozo, ergel.
 (6) AEBetako estaturik hotzera.



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Non egingo dute I.go
 Esaera Zaharren
 Txapelketa irailaren
 25ean ?

> Aurrekoaren erantzuna: Mikel Cantalapiedra

> Irabazlea: **Iker Beristain***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

*Zein garraio dute
 gustuko albumeko
 argazkietako lagunak?*

- **Motorra**
- **Hegazkina**
- **Bizikleta**

> Aurrekoaren erantzuna: Astoa

> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA **Solaguren**
 txinatarra

Bilbao-Plentzia errepidea 18. km GETXO
 Tf. : 94 430 61 77
 (Soilik etxera eramateko)



SARIA **La Gusana**
 liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta
 Tf. 94 491 14 12

lagusana

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



LUIS FRONTALA "CATALAN"-EK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ALGORTAKO TRAINERILLA, 1977

Arriluzen ateratako argazkian hor ditugu Trainerillatan 2. San Inazio Bandera (gorria) irabazi zutenak. Gainera, argazkian duten kokapena trainerillaren berbera da, brankatik hasita (Felix) eta poparaino (Eduardo eta "Markitos"). 1976an jokatu zen lehen aldiz, Errenteriako Beraunek (Beraun auzo baten izena da) Bandera eskuratu. 1978tik gaur arte Traineruen Getxoko Bandera izaten da urtero, Algortako jaietan. Hauxe da Algortako arraunlarien historian irabazitako lehen bandera (ez bakarria, geroago etorri ziren beste batzuk). Horregatik, kontatu didatenez, gazteak izanik eta herriko jaietan mugilduta (batzuk arrantzale jantzita daude) behar den bezala ospatu zuten etxean lortutako garaipena. ○

Izenak: Fernando Vazquez "Pescadilla" (ordezkoa), Marcos Bretos "Markitos" (patroia), Eduardo Rodriguez "El Rubio" (entrenatzailea), Eduardo Barrenetxea "Txirlita", Jose Luis Albizu "Txori", Imanol Batis (GB), Luis Frontela "Catalan", Felix Rodriguez "Tabique".

LANDER OTAOLA > aktorea

“Txikitatik gustuko izan dut jendeari barre eragitea”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **Asier Mentxaka**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Arraroa, baina ona.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Man of the moon filman, pertsonaia oso berezia da, desberdina, fiabardura izugarriak ditu, eta gainera, komikoa da; sekula ez dut ikusi horrelako beste pertsonaiarik filmetan.

Txikitan zer izan gura zenuen?

Pailazoa; gero aktore bilakatu da, baina txikitatik gustuko izan dut jendeari barre eragitea.

Badakazu ohitura txarren bat?

Izango ditut bai, baina orain ez datorkit bat ere burura.

Eta aitor dezakezun bizio bat?

Oso gustuko dut jatea, eta denetarik.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Nire helburua beti izan da aktore izatea, ez nuke gura beste ezer izan.

Eguna ala gaua?

Eguna, alaiagoa da, argia eta eguzkia gustuko ditut.

Zerk ematen dizu beldurra?

Hegazkinak.

Zein da zure ametsetako bat?

Aktore izatea zen, agian Goya saria irabaztea izan liteke, baina asko amestea da hori.

Errepikatuko zenukeen bidaiarik badago?

Asko, Erromara, Euro Disneyra eta beste leku askotara.

Parrandarik politenak non?

Bilboko Alde Zaharrea.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Agian Plentzia, oso polita eta lasaia da, gustuko dut. ○

LABURREAN— EITBko *Vaya semanita* saioan ikusi dugu Lander Otaola (Bilbo, 1989) azken hilabeteotan. Gaztea izanagatik ez da atzera geratu eta hainbat filmetan ere parte hartu du: *La maquina de pintar nubes*, *Zorion perfektua*, *Bon appetit*, e.a. Udazkenetik aurrera, ordea, *Kerman mintzalagun bila* saioan antzetzuko du pertsonaia txiki bat. Euskara ikasleak laguntzen ditu saio horrek. Baina Otaolak Uribe Kosta ere bisitatu du uda akabuan, Plentziako San Antolin jaietako *playback* lehiaketako epaile aritu baita. Zer izango ote da hurrena?

Zirri-marra
Arte Tailerra

2010 - 2011 Ikasturtea

Margolaritza
Marrazketa
Zeramika
Eskulanak
Argazkigintza Digitala
Ikastaro Bereziak

Anboto 2, Getxo; sarrera, Aingeruaren Etorbidetik.
Telf.: 944916186 e-mail: zirrimarrarte@gmail.com

DANTZALDI IBIL-TARIA:

aiko bbk dantza ergonomikoa erraza betikoa slowdance euskaraz guztiontzat ludikoa atsegina argia lurra mailakatu erritmoa mugimendua musika naturala oinez tradiziozkoa bertokoa pasodoblea balsa txotis polka jota jauziak mazurka porrusalda foxa ingurutxo tangoa sokadantza berrizen durangon elorrioren erandion galdakaon gernikan lemoizen sopelan zaratanon zarautzen

IKASTAROETARAKO AURKEZPEN TAILERRAK

Ikastaroetan izena eman surretik ezagutu gaitzazu egingo ditugun aurkezpen tailerretan, saio bakar batean. 19:00etatik 21:00etara, doan, konpromisorik gabe eta izena eman barik.

LEMOIZ, Armitzako frontoan	Irailak 10	ERANDIO, merkatu zaharrea	Irailak 13
DURANGO, Plateruenan	Irailak 14	SOPELA, Urka polikirkolegian	Irailak 15
GALDAKAO, Urretako eskoletan	Irailak 20	GERNIKA, (zehazteko)	Irailak 23
ZARATAMO, eskola zaharretan	Irailak 24	BERRIZ, Iremiferen lokalean	Irailak 27
ELORRIO, Arriola antzokian	Irailak 28		

IKASTAROAK

2010eko urritik 2011ko ekainera. Astero ordu bete (erdiko eskolak, 100 euro ikasturte osoa).

ERANDIO	Asteleheneretan
GALDAKAO	Asteleheneretan
DURANGO	Asteazkenetan
SOPELA	Asteazkenetan
GERNIKA	Ostegunetan
ZARATAMO	Ostiralean

Hasiera ikastaroak 18:30-20:00
Jarrapen ikastaroak 20:00-21:30
www.aikotaldea.com

ZARAUTZ, Astearteetan
Hasiera ikastaroa 19:00-20:30

bbk
Informazio gehiago eta ikastaroetan izena emateko: www.aikotaldea.com edo 646336147 telefonon.

Unibertsitateko Aisia Kulturala

Getxo

2010-2011 Ikasturtea // 1. seihilekoa

IKASTAROA:

EUSKAL HERRIA: KULTURA ETA TRADIZIOA

Irakaslea: Esther García

Lekua: Algortako Kultur Etxea (Villamonte)

Ordutegia: 19:00-20:30 (astearteetan)

Egutegia:

Urria	7, 14, 21, 28
Azaroa	4, 11, 18, 25
Abendua	2, 9

Eta gainera...

- **La escultura contemporánea en los museos de Bilbao** // **Irakaslea:** Esther Boulandier
urriaren 5tik abenduaren 21ra (astearteetan, 17:00etatik 18:30era)
- **El cine a través de la psicología: un cruce infinito de caminos**
// **Irakaslea:** Bittor Arnaiz
urriaren 5tik abenduaren 21ra (astearteetan, 19:00etatik 20:30era)
- **A la sombra de Atapuerca: entre fósiles y peregrinos** // **Irakaslea:** José Luis Dueñas
urriaren 7tik abenduaren 9ra (ostegunetan, 17:00etatik 18:30era)

INFORMAZIO GEHIAGO: Algortako Kultur Etxea (Villamonte, A-8) // Tel.: 94 491 40 80